

ttipi ttapa

422



Mendi ibilaldiak han-hemenka

32

Mendi ibilaldi luzeak gogoko dituztenek aukera ederra izanen dute, Arantza, Baztan eta Sarako itzuliak eginen baitira hurrengo hiru igandetan.



Salbatore bestak Irurita eta Urdazubin

GB

Uda hurbil dugu eta herrietako besten txanda ailegatu da. Beti bezala, Irurita eta Urdazubiko Salbatore bestek irekiko dute denboraldia gure eskualdean.

2006ko maiatzaren 18a • XXVI. urtea

04 Berako suhiltzaileek 100 urte



BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU



ogitartekoak eta
disco musika
goizaldera arte



ZELAI - TXIKI ^{SL}

ZURGINDEGIA



NAHI DUZUN
NEURRIRA ETA ESTILORA

Gaztaina · Haritza
Intxaurra · Gerezia

Errota, 13 · Iraetako industrialdea
20740 ZESTOA · Tfnoa 943 14 78 65
www.zelaitxiki.com



ESKAINZA ZABALA LOGELETAN



Altzari klasikoak nahiz modernoak

URDAZUBIKO BESTAK

2006

Fiestas de Urdax • Fêtes de

MIÉRCOLES, 24 DE MAYO

20:00 h: Chupinazo de entrada de fiestas.

22:00 h: Cena típica para la primera, segunda y tercera edad en **Karretero**. La noche estará amenizada por **Modesto**.

JUEVES, 25 DE MAYO

11:00 h: Misa Mayor.

12:00 h: Aperitivo en el frontón amenizado por los danzaris **Zazpiak Bat** y **Gaiteros**.

16:00 h: Partidos de pelota a mano: **Sebastien Sorhouet** y **Alain Yustede**, contra **Olivier Arozarene** y **Ellande Alfaro**.

17:00 h: Juegos infantiles con **JOKULANDIA**.

22:00 h: Paellada cojonuda. Durante la paellada y por la noche animación con el grupo **Kiki Bordatxo**.

VIERNES, 26 DE MAYO

12:00 h: Partido de Fútbol casadas/os contra solteras/os.

13:30 h: Comida de la **Asociación Ugarana** en el restaurante **La Koxka**.

14:00 h: **Dianas** por el barrio de **Dantxarinea**.

17:30 h: **Gorriti** con sus animales.

20:30 h: Desafíos de **Euskal Jokoak** entre los del pueblo.

21:00 h: **Sidrería portatil** animado por **trikitilaris**.

00:00 h: **Bailables** con el grupo **Tximeleta**.

04:00 h: **Concierto** con **Alarma Social**. Odin!

SÁBADO, 27 DE MAYO

10:00 h: **CARRERA DE CONTRABANDISTAS**.

13:00 h: Aperitivo con **bertsolaris**.

14:00 h: Típico **Zikiro** animado con la txaranga **Txorongo**. A continuación sorteo con premios sorpresa y seguidamente correcales por los bares desde villa abajo hasta villa arriba. Por la noche **Xingar Jatea**.

17:30 h: Juegos infantiles con **JOKULANDIA**.

00:00 h: **Bailables** con el grupo **Gaubela**.

DOMINGO, 28 DE MAYO

16:00 h: Demostración de habilidad artística con **motosierra** (tallas de madera) con **Ikusgarri**. La tarde estará animada por **Jose Angelekin**.

17:00 h: **CAMPEONATO DE SOKATIRA DE NAVARRA**, 4x4.

17:30 h: **Talos**.

20:30 h: **Toro de agua**.

21:00 h: El final de las fiestas con el **Pobre de Mi**.

22:00 h: **Cena de despedida** de fiestas.

MAIATZAK 24, ASTEAZKENA

20:00etan: Txupinazoa eta besten hasiera.

22:00etan: **Afari berezia** Lehen, Bigarren eta Hirugarren adineko jendearentzat **Karretero Ostatuan**. Ondotik, gaueko giroa alaitzeko **Modesto**.

MAIATZAK 25, ORTZEGUNA

11:00etan: **Meza Nagusia**.

12:00etan: Herriko Pilotalekuan **aperitiboa Zazpiak Bat** dantzari taldearekin eta **Gaiteroekin**.

16:00etan: Esku pilota partidak: **Sebastien Sorhouet** eta **Alain Yustede**, **Olivier Arozarene** eta **Ellande Alfaren** kontra.

17:00etan: Haurrentzako jokuak **JOKULANDIA**rekin.

22:00etan: **Paella jatea**. Paella jan bitartean eta gau osoan animazioa **Kiki Bordatxo** taldearekin.

MAIATZAK 26, ORTZIRALA

12:00etan: **Futbol partida** ezkonduak ezkongabeen kontra.

13:30ean: **Ugarana** elkartearen bazkaria **La Koxkan**.

14:00etan: **Dianak** Dantxarinea auzoan.

17:30ean: **Gorriti** eta bere animaliak.

20:30ean: **Euskal Jokoak** herritarren artean.

21:00etan: **Sagardotegi mugikorra** trikitilariekin.

00:00etan: **Dantzaldia Tximeleta** taldearekin.

04:00etan: **Kontzertua Alarma Social** taldearekin. Odin!

MAIATZAK 27, LARUNBATA

10:00etan: **KONTRABANDISTEN LASTERKETA**.

13:00etan: **Aperitiboa bertsolariekin**.

14:00etan: **Zikiro Jatea Txorongo** taldearekin. Gero opari zozketa, eta ondotik kalejira herriko ostatuetan barrena. Gauean **Xingar Jatea**.

17:30ean: Haurrentzako jokuak **JOKULANDIA**rekin.

00:00etan: **Dantzaldia Gaubela** taldearekin.

MAIATZAK 28, IGANDEA

16:00etan: Motozerrekin erakusketa **Ikusgarri**rekin (egurrezko iduriak). Arratsalde osoan animazioa **Jose Angelekin**.

17:00etan: **NAFARROAKO SOKATIRA TXAPELKETA**, 4x4.

17:30ean: **Taloak**.

20:30ean: **Urezko zezena**.

21:00etan: **Pobre de Mi** besten bukaera.

22:00etan: **Besten bukaerako afaria**.

MERCREDI, 24 MAI

20:00 h: Ouverture de fêtes.

22:00 h: Repas au restaurant **Karretero**. Toute la soirée sera animée par **Modesto**.

JEUDI, 25 MAI

11:00 h: Messe solennelle.

12:00 h: Apéritif au fronton animé par les danseurs de **Zazpiak Bat** et par les **Gaiteros**.

16:00 h: Partie de pelote: **Sebastien Sorhouet** et **Alain Yustede**, contre **Olivier Arozarene** et **Ellande Alfaro**.

17:00 h: Jeux pour les enfants avec **JOKULANDIA**.

22:00 h: **Paella géante**. Toute la soirée sera animée par **Kiki Bordatxo**.

MERCREDI, 26 MAI

12:00 h: Partie de football opposant les célibataires aux marié(e)s.

13:30 h: Repas de l'association **Ugarana** au restaurant **La Koxka**.

14:00 h: **Dianas** dans le quartier **Dantxarinea**.

17:30 h: Animation pour les enfants avec **Gorriti** et ses animaux.

20:30 h: **Euskal Jokoak** défis entre les villageois.

21:00 h: **Cidrerie mobile** animée par des **trikitilaris**.

00:00 h: **Bal** avec **Tximeleta**.

04:00 h: **Concert** avec **Alarma Social**. Odin!

SAMEDI, 27 MAI

10:00 h: **COURSE DES CONTRABANDIERS**.

13:00 h: Apéritif animée par des **bertsolaris**.

14:00 h: **Méchoui** animée par la txaranga **Txorongo**. Dans l'après midi tirage au sort de lots surprises et passe-rues dans le village. En soirée **Xingar Jatea**.

17:30 h: Animation pour les enfants avec **JOKULANDIA**.

00:00 h: **Bal** avec le groupe **Gaubela**.

DIMANCHE, 28 MAI

16:00 h: Spectacle à couper le souffle avec **Ikusgarri**: sculpture à l'aide de tronçonneuse. Après midi animée par **Jose Angel**.

17:00 h: **CHAMPIONNAT DE SOKATIRA DE NAVARRA**, 4x4.

17:30 h **Taloak**.

20:30 h: Un exceptionnel **TAUREAU D'EAU**.

21:00 h: Cloture des fêtes avec le fameux **Pobre de Mi**.

22:00 h: **Repas de cloture** des fêtes.

Laguntzailea

MON OSTATUA • TABAKODENDA



Manuel Iriarte eta Josu Goia suhiltzaileak, Berako parkearen aitzinean.

ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

1906KO MARTXOAREN 11N SORTU ZEN

Ehun urte bete ditu Berako suhiltzaile boluntarioen parkeak

Joan den larunbatean, maiatzaren 13an, Babes Zibileko bolondresaren bigarren eguna ospatu zen Beran. Ekitaldi gehienak Arkaitza harrobian egin ziren eta Mendiko erreskate taldeek, erreskateko-zakurrek, Gurutze Gorriko eta DYako anbulantziek eta suhiltzaileek parte hartu zuten, bertzeak bertze, ekitaldian. Babes zibileko boluntarioaren eguna Beran ospatzearen arrazoi nagusia, Berako suhiltzaile boluntarioen mendeurrena da, ehun urte bete baitira aurten lehen suhiltzaile talde hura sortu zenetik. Beraien historia eta gaur egungo egoeraz aritzeko Manuel Iriarte eta Josu Goia suhiltzaileekin izan gara.

Aitor AROTZENA

Zehazki, martxoaren 11n egin zituen ehun urte suhiltzaile taldeak eta orduan ere ospatu zuten herrian. Izan ere, Manuel Iriarte suhiltzailea herriko alkate zenean udaletxean topatu zuten araudiaren arabera, 1906ko mar-

txoaren 11n eratu zen suhiltzaile taldea. Iriarteren erranetan, Nafarroako lehendabizikoa izanen zen Berakoa, Agoitzekoa hogeitun beranduago sortu baitzen. Lehendabiziko araudi haren arabera, suhiltzaile taldean sartzeko lehen tasuna zuten mekaniko-

ek, zurginek, harginek, igeltseroek, arotzek, hojalateroek eta fundizio eta minetako langileek. Suhiltzaile taldea hamabortz lagunek osatzen zuten, zazpina laguneko bi ataletan banatua eta arduradun batekin. Garai hartan uniformerik ez zuten, suhiltzaileen ezaugarria beraien etxean jarritako inskripzioa zen: "Aquí vive un bombero" zioen. Araudi horretan ageri den bezala, suhiltzaileek ez zuten auzolanean aritu beharrik eta beraien familiek ez zuten ostatu eman beharrik.

Garaiak aldatu dira, baina oraindik ere suhiltzaileen premian noiznahi suertatzen gara. Gaur egun hogeitun boluntariok osatzen dute Berako taldea eta Manuel Iriarteren ustez, garrantzitsua da herritarrek osatzea bonbero taldea: «Ingurua ezagutzea hagitz garrantzitsua da, sua itzaltzera joa-

Josu GOIA *Suhiltzaile boluntarioa*

“Bizi bat edo baserri bat salbatzea lortzen duzunean satisfakzio izugarria da”

Zer behar da suhiltzaile boluntario izateko?

Lehenbiziko gauza gogoan behar da. Denok badugu gure lana, gure familia, baina sua baldin bada, dena utzi eta sutara joaten gara.

Ikastaro batzuk egin behar ditugu, ezin baita sua itzaltzera joan deus jakin gabe, jakin behar duzu nola ibili, nola erabili gauzak... Suhiltzaileen tramankuluak erabiltzen ikasteko denbora pixko bat be-

har da, baina borondatea eta hori egiteko gustoa behar da. Sute batetik etorri eta lortu baduzu bizi bat edo etxe bat salbatzea, izugarrizko satisfakzioarekin etortzen zara, hori ez da mundu guziko diruarekin ordaintzen. Alderantziz, ez baduzu lortzen, baserriren bat erre edo Larunen pasatu zena, hiru emakume hil eta gorpuk ekarri bertzerik ezin egin, hori hagitz gogorra da. Elkarrekin taldeko terapia ere egin behar izan genuen.

Suhiltzaile boluntarioen lanak ez al du profesionalak izateko bidea ixten?

Guk argi eta garbi erran dugu, boluntarioak traba baldin bagara profesional gehiago sartzeko, bertan behera utziko dugula. Baina momentu honetan ikusten dugu Nafarroan ez dela diru nahikorik Beran edo Lesakan parke profesionala jartzeko. Hemen Muga 25 kilometrorra dugu, baina handik ailegatu orduko batzutan sua itzalia dugu.

ten zarenean, lehenbiziko gauza apuro ordu baterako ihes egiteko aterabidea garbi eduki behar duzu. Horretarako mendia ongi ezagutu behar da».

GORABEHERAK TALDEAN

Ehun urte hauetan zenbait gorabehera izan ditu taldeak. 1945erako ez zen talderik, berez, baina beti hiruzpalau lagun baziren suteei aurre egiteko prest. Hori bai, baliabide eskasak zituzten eta hori agegian gelditu zen 30 urte berandua. Zalain inguruko lantegietan sute handi bat izan zen eta Lesakatik, Iruñetik eta bertze zenbait lekutatik suhiltzaileek etorri behar izan zuten. Horrek kezka sortu zuen herrian eta Udaletxeak zenbait material erosi zituen. Horretaz gain, suhiltzaile taldeak berriz ere lanari ekin zion eta zenbait ikastaro egin zituen.

Josu Goiak aipatu digunez, aldaketak izan dira urteotan ere: «Lehenbiziko urteetan mendietako suteak izaten ziren gure ateraldi gehienak. Ez zen oraingo kontzientziaziorik eta iluntzean su ematen zioten sasei... Orain, lege berriarekin su ematea zilegi da, ongi kontrolatua baldin badago. Orain mendian guttiago izaten da, nahiz eta Ortziar Santu egunean izugarria izan zen eta 12 ordu pasatu behar izan zuten suhiltzaileek Sarralla mendian... Horretaz aparte, fabriketan, pisuetan gertatutako suteetan izan gara, kortozirkuitoengatik... bertze aunitan, jendeak etxean giltza utzi eta suhiltzaileek leiho edo balkoietatik sartu behar izaten dugu».


BALDEEKIN BETE BEHAR ZEN TRAMANKULUA

Babes Zibileko bolondresaren egunean egindako erakusketan, Berako suhiltzaileen bonba zaharra izan zen izarretako bat. Suhiltzaileek eurek zaharberri dute, pintura pixko bat eman, gurpila aldatu... Traste zaharra zena, parkeko altxorra bihurtu da.

Bonba horrek funtzionamendua berezia zuen, lehenik baldeekin bete behar izaten baitzen, gero bere lana bete ahal izateko. Josu Goiak gogoratzen duenez, «garai batean ez zen urdepositorik, jendea arropa garbitzeko errekarra edo auzoetan izaten ziren garbitokietara joaten zen. Lehenbiziko urdepositoa nahiko baju egin zen, Xantel-Ereka ondoan, baina presiorik gabe. Makina horrek ez du presiorik eta tramankulu hori baldeekin bete behar zen, eta gero lau lagunek, bi makilekin presioa eman behar izaten zioten, pi-pan, pin-pan... halere, orain gure altxorra da!». Izan ere, garai bateko materialak eta gaur egungoak ez dute zerikusirik. «Mangerak ere telazkoak ziren —dio Josu Goiak— eta bustiak gelditzen baziren hondatu egiten ziren. Zintzilika-tuak paratu behar izaten ziren, ur guzia kentzeko. Horregatik, suhiltzaile parkeetan dorreak izaten ziren, mangerak zintzilik jartzeko. Orain badira mangera modernoak eta lan hori kendu digute».

Baliabide eskas eta kaxkarrei au-

rre eginez mendea egin du Berako suhiltzaile parkeak. Josu Goiak gogoratzen duenez, «12 urte nituenean, nere etxean sua izan zen eta makina horrekin ibili ziren. Alfonso eta Juanito Oroz anaiek, sua zenean beraien alkandora gorriak hartu eta joaten ziren, ez zen bertze uniformerik... Gu hasi ginen garaian eman ziguten kamioi tiki-estu bat, pertsona bat juxtu-juxtuan sartzen zena, martxak aldrebes zituena... baina horrekin kriston lana egin genuen! Orain material hobea dugu eta zerbait egiteko ahalmen gehiago. Nafarroako Gobernuak ematen dizkigu ibilgailuak, tresneria, arropa... behar dugun guzia eta horrekin betetzen dugu gure lana».



Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.info
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, SLU.
Administrazioa: Amaia Goia.
Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Arkaitez Mindegia, Franck Doloisor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetiña, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odrozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...
Imprimategia: Gertu.
Erakunde laguntzaileak: Bera, Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	30 €
Espainia	30 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	50 €
Europa	50 €
Amerika	108 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leizta	25 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Futbol zelaia Mendaur kaxkoan

2000. urteko udaberriari mendi itzuli bat egiten ari nintzela, mendi egi batean egiten ari ziren obra batekin topo egin nuen. Etxe koxkorra nahiko polita egin berria zen. Tokia berriz, nere ustez nahiko txarra ipar mendebalera begiratzen duen mendi egi baita eta altura handian gainera. Gaur egungo materialak azkarrak izan arren, toki hortan hai-zeak eta euriak, bertze edozein tokian baino lan gehiago emanen dute urte guttiren barruan, pentsatu nuen. Hala ere, etxea oinarrizko beharra denez nonbait egin behar da eta ez dugu beti tokia hautatzen ahal... Beraz, nere kezka ez zen hainbertze etxea bera, baizik eta jarrarian kontatuko dudana: Etxe ingurua toki baxa eta malkartsua zen. Lurraren jabea makinatza handi bat kontratatu eta 500 metro koardroko zelaia egin zuen mendia alde batetik janetz eta amildegi aldera lurra botatz. Banuen boladaxka bat paraje hartatik ibili gabe, eta arrotz itxura aldatua topatu nuen. Sekulako pena sentitu nuen bihotzean ikusirik lurrari egin zitzaien sakia. Eta zertarako? 100 metro koadro zuen etxeari inguruan 500 metroko parkina, jostalekua, baratzea eta nahi dugun guztia jartzeko? Non eta mendi egi basa haretan? Lurra mugitu berria zen, dena oratua eta buztin gorria airean, dena putzu eta intzuki. Momentu batez mendia bera odoletan

zela iruditu zitzaidan. Obrari begira nengoe-larik etxeko nagusia agertu zen eta eztabaida beroa izan genuen. Berak sutsuki erran zidan lurra "berrea" zela eta baimenik bazuela, eta gainera guztia belar hazia bota ondoren berde-berde geldituko zela...

Ni garai hartan, zinegotzia nintzen eta obra horren berri ez izan arren ez nitzen baimena edo lizentziari buruzko eztabaidari lotu, nere ustez arazorik handiena gure kontzientzietan baitago legetan baino lehen. Eta halaxe erran nion:

"Begira, nik gaur nahiko diru edukiko banu, teknika eta makinaria nahiko eskura dezaket Mendaur kaxkoan futbol zelai bat egiteko eta gainera diru eta malizia nahiko izanda seguru aski baimenak ere lortuko nituzke... Hori bai futbol zelaian belar naturala ereinen nuke eta dena berde-berde geldituko litzake..."

Ironiaz argi utzi nahi nion ahalak eta zuzentasuna ez direla beti bat etortzen, bistakoa baita Mendaurren futbol zelaia egitea animaleko astakeria dela.

Gizon harek lau urte behar izan zituen obra akautzeko eta lur mugimeta guztia ez zen joan den urtera arte "berdatu". Bitartean eurite bakoitzean azpiko erreka uer-uerra joan zen eta mendian egindako sakia zakurren ipurditik ageri da.

Kasu bat bertzerik ez dut aipatu baina gure eskualdean dozenaka kasu dago. Bakoitzak bere etxetxoa ikusten du

bakarrik, baino obra guztiak batera begiratzu gure eskualdean gertatzen ari den paisai aldaketa gogorra da. Milaka eta milaka urtetan gure mendiek izan duten itxura urte guttitan kolpetik aldatzen ari da. Batetik obra handiak errepideak, kanalak, argindar zentralak, torreak, antenak... eta bertzetik ehunka ugaldurekin obra "ttikiak" (?), beraien pista zabaltzeak, lur mugimetak, ditsosozko "escollerak" eta guzti...

Inguremena guztiona da eta guztion ardurara eskatzen du. Mendia maite dugulako egiten dugu etxea mendi kaxoan? Eta horretarako dena zelaitu eta harritzar horiek sartuz kilometrotik ikusiko diren lubaki faltsuak sortuz? Porlanaz eta galipotaz gure lur onak antzutu eta gero mendirik zakarrenean baratzeak egin? Eskin guztietan etxeak eraikitzen herrian bertan tokirik onenetan ha maika etxe huts usteltzen den bitartean?

Lege kontuetan sartu baino hobe dugu guztiok kontzientzia pixkot hartzea, norbere burutik hasita. Jakin dezagun gure eskualdean dagoen aberastasunik handiena gure mendi eta erreka xokoetan, bertako paisaian, natur ingurune zoragarrian dagoela. Eguzkiaren azalaren azpian ez dago kontu korronterik guzti horren balioa kontu deza keena.

Zoritxarrez kontzientziarik ez dutenak ibiliko dira beti eta horrek dauden legeak zorrozki aplikatzea eskatuko du. Baina Udalek eta administrazioak bere lan egin

dezaten iritzi publikoa mugitzen hasi beharko dugu.

Oskar Goñi Petrirena
BERA

Mendialdeko IKA Arturo Campion Fundazioaren kanpainaren berri emanez

Agur t'erdia:

IKAko mendialdeko euskaltegietatik idazten dizuegu Arturo Campion Fundazioak abiatu duen kanpainaren berri eman eta atxikimendua adierazteko. Ziur asko entzuna izanen duzue Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikaren eraginez Nafarroako Euskaltegi eta gau eskolok sufritzen ari garen egoera jasan ezina dela.

Hau dela eta, helduen euskalduntze eta alfabetatzean segitu ahal izateko Iruñerriko IKAko euskaltegiek Arturo Campion Fundazioaren izenean "Gobernua zeu izan" ekimena abiatu du. Guk Bortziritan, Malerrekan eta Leitzaldean Euskara Mankomunitateen dirulaguntza baldin badugu ere, Iruñean ez dute Nafarroako Gobernuak ematen duena eta ikasleek ordaintzen duten matrikula baino. Horregatik, iaz abiatutako ekimen hau egin beharretan gara aurtan ere. Kanpaina honek ikasleentzako babesleak lortzea zuen helburu, ikasleek ordaintzen dutena baino gehiago ordain ez de-

• IRAKURLEAK MINTZO •

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •

zaten. Guk AEKoen korrika edo ikastolen Nafarroa Oinez bezalako ekimenik ez izanik, aurten ere Gobernua zeu izan kanpainari heldu diogu. (Eta 2005ean bildutakoari esker aurten matrikula gehiegijaso gabe ikasten ahal dute gure ikasleek).

Elkarteak, norbana-koak edo lagun taldeak egindako 250 €ko aporazioarekin ikasle baten babesle bihur zaitezke, edota bestelako diru aporazioa egin dezakezue. Gainera, zuen ezagunen artean kanpainaren informazioa zabal dezakezue, haiek ere laguntzen ahal baitigute.

Beraz, laguntzeko prest izanez gero, zuen laguntza ondoren dituzuen kontuetako batean sar ezazue eta, argibide gehiago nahi izanez gero, gurekin kontaktuan jarri. 250€ko laguntzagatik, Babesle txartela helaraziko dizuegu eta, honetarako, zuen helbidea beharko dugu. A! Eta ez ahaztu zuen laguntza ho-

rrek desgrabatzeko balioko dizuela eta 1.000 €ko bidaia txekarean zozketan sartuko zaituzte-gula.

Aldez aurretik esker-rrak Mendialdeko IKAKo euskaltegien izenean.

Kontuak honako hauek dituzue (biak Arturo Kanpion Fundazioaren izenean, desgrabatu ahal izateko):

EUSKADIKOKUTXA: 3035 0058 31 058 0084113

CAN: 2054 0152 35 914012555.4

Eta, kontakturako, hona hemen helbideak:

Leitzaldeko Euskaltegia — 948610776 - leitzata@ikanet.net

Malerrekako Euskaltegia — 948451555 - malerreka@ikanet.net

Bortzirietako euskaltegia — 948637796 - bortziririak@ikanet.net

Izan ongi eta MILA ESKER.

Mendialdeko
IKA Euskaltegiak

Goizuetako apaiz jaunari

Goizuetako elizan obra asko egin dituzu. Jaunari eta Juanito eta Eulogiri esker, dirua izan duzu eta baita ere herriaren laguntza. Orain, nahi genuke Magdale-nako ermita eta San Antongo ermita ongi jartzea, zergatik premi handia baitaukate. Eskatzen dizugu berehalaxe obrak hastea, herriak ikusi dezan ermita hauek ondo jarriko direla lehenbailehen. Animo eta aurrera eta eskerrik asko.

Herriko bat.



BERRIA 2006-05-07

«Oraingo federazioen kezka bakarra pilota munduan gaindi zabaltzea da. Baina zer zabaltzen dute? Ez naiz batere ados politika horrekin. Pilota euskalduna da, eta Euskal Herrian behar du egon. Pilota gauza inportante da Euskal Herrian, ia hizkuntza-ren pare. Urrundik heldu den kirol bat da. Ongi zaindu behar da, ez da edozeinen eskupean utzi behar. Federazioan badira pertsona inportantak, baina ez dute inoiz jo pilotarik».

Jean FAGOAGA
Sarako auzapez ohia
Berria 2006-05-07

«Lekarozko aterpetxean baino lehenago Dantxarineako Bentetan lan egin nuen, baina behar nuenean ez ninduten lagundu. Aritu nintzen lehendabizikoan, bertze langileei baino gutiago ere ordaintzen zidaten. Aterpetxean babestuagoak gaude eta elbarritasunen bat izanagatik, pertsona arruntek bezala lan egiten ahal dugula erakusten dugu».

Felix ZELAIETA
Lekarozko aterpetzeko langile elizondarra
D.Navarra 2006-05-05

ANTZUZELAK S.L. Tel: 948 631 317 HARRO NATURALA. Aharretan eta Lantzen. Antzuzelak, Lantzen, Oinez, Antzuzelak, Lantzen, Oinez, Antzuzelak, Lantzen, Oinez. Antzuzelak S.L. BERA. Irungo errepidea BERA.

Karlos Alzugaray FISIOTERAPEUTA OSTEOPATIA. Itzea 20 · 31780 Bera · Navarra T. 948 630 187 M. 607 853 208

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE ANZABAL AGENTZIA. ■ Zurich Aseguruak • Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak ■ Lan aholkularitza • Nomina eta Aseguru Sozialak ■ Aholkularitza fiskala • Errenta Deklarazioak, IVA... ■ Inmobiliaria • Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua ■ Gestoria • Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak. Santiago 15 - Tinoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

KULTURA

Bidasoako XIX. bertso-paper lehiaketara lanak aurkezten ahal dira

Ekainaren 2a baino lehen igorri behar dira Berako Kultur Etxera

ttipi-ttapa

Baztan-Bidasoa inguruan bizi direnentzat Bidasoako XIX. bertso-paper lehiaketa antolatu dute Berako Kultur Batzordeak eta Bortziritako Bertso Eskolak, Bortziritako Euskara Mankomunitatearen laguntzarekin. Parte hartu ahal izateko, jatorrizko, argitaratu gabeko eta bertze lehiaketa ba-

tean saritu ez diren bertsoak izan beharko dira. Gaia, doinua eta neurria, idazleak hautatuko ditu. Lehiaketa hiru mailatan banatu dute: A maila, 12 urte arte izanen da eta guttienez 2 bertso edo 4 koplak eskatuko dira; B mailan, 12 eta 18 urte artekoentzat, lau bertso aurkeztu beharko dira guttienez; C mailan, 18 ur-



ARTXIBOKOA

Sari banaketa ekainaren 9an egingen da Berako Kultur Etxean eta Bidasoaldeko bertso eskola ezberdinek parte hartuko dute.

te baino gehiago dituztenentzat, guttienez 8 bertso idatzi beharko dira. Bertsoak onartzeko, agerian, izenburua eta adina bertzerik ez dute izan beharko. Bertze gutunazal batean, bertsoen izenburua paratuko da eta, barnean, egilearen izen-abizenak, adina eta telefonoa.

Bertsoak ekainaren 2a baino lehen igorri beharko dira helbide honetara: Berako Kultur

Etxea; Bidasoako XIX Bertso-paperlehiaketa; Eztegara pasealekua 11; 31780 Bera.

Sariak ekainaren 9an banatuko dira Berako Kultur Etxean eta ekitaldian Bidasoaldeko bertso eskola ezberdinek parte hartuko dute.

Maila guzietako lehen hiruek sariak izanen dituzte. Ttikien mailan, lehenak 50 euro irabaziko ditu, bigarrenak 40 eta hirugar-

rrenak 30. Horrez gain, hirurek opari bat izanen dute. Ertainen mailan, lehenak 120 euro eskuratuko ditu, bigarrenak 75 eta hirugarrenak 50. Helduen mailan, azkenik, txapeldunak 150 euro lortuko ditu, bigarrenak 90 eta hirugarrenak 60. Bi maila horietan, diruaz gain oroi-garriak ere eskuratuko dituzte. Epaimahaia Bortziritako bertso eskolak izendatuko du.

Lanchas
 PARKETAK - TARIMAK
 KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
 ESTALDURA OROKORRAK
 BERA - TELEFONU: 948 637 472 - FAX: 948 637 404

ZUBIONDO JATETXEA
 Alasta karrika
 BERA NAFARROA
 TLF 948 625 472
 sagardotegia jatetxea sagardotegia

JAIONE - GOZOTEGIA
 Altzate, 19•948630786 •BERA

ARTEKARI TALDEA
 ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa bemi ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitoprenak
- Eibarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegaritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittiria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 404
 BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

BIZIKLETEN
 SALMENTA ETA KONPONETA
 KATEA - BIKI
 KAZTEGIA, 1 • BERA
 948 637 12 18

bortz IRUDI
 bortzirudi@telefonica.net

KARTELAK - KANSETAK - BIFURKAK - TOSKATILAK (Beltz, zuria, marroi - disimulak)
 FOTOKOPIA DIGITALAK - BILKORAK - TIRRI-BILKORAK - PLANGAK
 ENKADERNAZIOAK - PLASTIFIKAZIOAK - PEPEKOTAK - BULOJO MATERIALA
 DISEÑO GRAFICO - LOGOTIPOAK - ERUSTALDIAK - IMPRENTA

Entzara, 76. Ediziorako Bidea II. - BERA - Tel/Fax: 948 631 571

BERA

San Esteban bestetako egitarauaren azalerako lehiaketa deia egin da

Jesusen Bihotzako Mikel Aldazabalen kartelak iragarriko du Ekobera

Amaia eta Ainhoa

San Esteban bestetako egitarauaren azalerako lehiaketa abian da dagoeneko. Lehiaketa honetan nahi duen guztiak parte hartu ahal izanen du eta nahi hainbertze lan aurkeztu ahal izanen ditu. Aurkeztu beharreko argazkia edo kartela kolorezkoa izanen da, ez da diapositibarik onartuko eta bertikala izanen da (18x24 cm.) eta Berako besta giroa isladatu beharko du. Lanak ekainaren 9rako Herriko Etxeko bulegotan aurkeztu beharko dira eguerdiko 13:30ak baino lehen. Saria bakarria izanen da, 400 eurokoa eta epaimahaia Berako Kultur Batzordea izanen da.

Mamori Art Lab

Mamori Art Lab, Amazonian kokatutako arte laborategi bat da. Lehengo urtetik, udan, argazkilaritza, diseinua, arkitektura eta soinuaren inguruko sormen tailerrak antolatzen dituzte profesional batzuk. Asier Gogortza beratarra da proiektuaren bultzatzailea. Proiektu honenkin parte hartzaileen eta Mamori lakuko biztanleen arteko elkartr-



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Gazte Eguna

Apirilaren 30ean ehun lagun baino gehiago bildu zen Gazte Egunean, hamahiru taldetan banatuak. Hambruna taldea izan zen garaile.

kaketa bultzatu nahi dute, sormen eta hausnarketa prozesuan sakonduz. Helburu nagusia soinu inguru naturalen sormen ikerkuntza da, ez dokumentala. Landa-grabaketan zein estudioan egindako lanean eta elkartrukean oinarritzen dena baizik. Ikastaroan landa grabaketaz gain, entzuketak saioak, mahai inguruak eta estudio lan saioak egingen dira bertzeak bertze. Tailerra abuztuaren 18tik 27ra izanen da Brasilgo Amazonia-

ren erdian, Mamori laketaren bazterrean. Gaztelera eta ingelesa jakitea derrigorrezkoa da. Ikastaroaren prezioa 650 eurokoa izanen da ikasleentzako eta gainerakoentzat 850 eurokoa.

Josetxo Sainz hirugarrena Nogaróko zirkuitoan

Josetxo Sainz berratarra denboraldi ederra burutzen ari da moto kompetiziotan. Josetxo orain Hendaian bizi da. 34 urterekin Sainz Mo-

tosport SMS Competición eskuderiaren jabea da. Espainiako Formula Extreme eta Frantziako Superbikes kategoriaritan aritzen da. Bere eskuderiak, Pariseko kontzesionario baten babesarekin, denboraldi gehiena Frantzian egiten du. Bere garaipenen artean azpimarratzekoa da Frantziako abiadura txapelketan, Nogaróko zirkuitoan lortutakoa. Superbikes mailan podiumera igotzea lortu du Suzuki 1000 GSXR motoarekin.

FLASH

Ricardo Barojako ikasleak saritu dituzte

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko Euskara Zerbitzuak 2005-06 ikasturtean antolatutako bi lehiaketetan lehenbiziko saria jaso du te Ricardo Barojako bi ikasle hauek: Lehen Hezkuntzako Poesia lehiaketan 6. mailako Joseba Martinez Guerra, "Bi lagun, bi mundu" olerkiarekin. Lehen Hezkuntzako Ipuin lehiaketan 6. mailako Ibon Erdozain Ibarra, "Uso galdua" ipuinarekin. Sari banaketa ekainaren 2an Iruñeko Nafarroako Jauregian izanen da.

Felix Errandonea Memoriala

Maiatzaren 6an, Gure Txokoa Elkarteak antolatuta egin zen XXXI. Felix Errandonea Memoriala. Junior mailako 40 txirrindularik parte hartu zuten eta 65 kilometroko ibilaldia 33 txirrindularik bukatu zuten. Jon Belastegi, Elektro Alavesa Taldeko txirrindularia izan zen garaile 1h 34minutu eta 46 segundurekin.

Mikel Aldazabal garaile Ekobera kartel lehiaketan

Jesusen Bihotza Ikastetxekeko Mikel Aldazabalek irabazi du II. Ekobera iragarriko duen kartel lehiaketa. Feria ekologiko hau ekainaren 24ean ospatuko da aurtengoan.

ANSONEA
Ostatua-Jaletxea
Eguneroko menua eta antebururatu menu bereziak
Terraza estalia eta Ziberkafea
Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

SAROB SANDERS pentsuak
okindegia
Kategorik, 41 - Tel: 948 630 999 - BERA

BAR Botxo
OSTATUA
© 948630052 • Zalain • BERA

LESACA

Sanferminetako kartel eta azal lehiaketa zabaldu du Udalak

Heldu eta haurren lanak maiatzaren 26rako aurkeztu behar dira Herriko Etxean

Aitor AROTZENA

Udalak lehiaketa deitu du, aurtengo Sanferminetako programaren azala eta bestak iragarriko dituen kartela aurkezteko.

Kartelak kartulina edo paper lodian aurkeztu behar dira, norberak nahi duen teknika erabiliz. Azalen neurria 25x20 cmkoa izanen da eta kartelena 50x40 cmkoa. Bietan, derrigorrez agertu beharko du "Lesaka. 2006ko Sanferminak".

Partehartzaileek Lesakan jaiok edo bertan bizi behar dute. Lanak, lehiaketa hauetan ohikoa den sistema erabiliz aurkeztu beharko dira maiatzaren 26ko 13:00ak baino lehen. Aurkezten diren lanak Sanferminetako programan argitaratu ahal izanen dira. Udala jabetuko da lan sarituez eta bertzeak itzuli egiten dira.

Sariei dagokienez, bai kartel, bai portada lehiaketako irabazleak 500 euro eskuratuko di-

tu eta biak argitaratuko dira, bat kartel gisara eta bertzea programaren aitzoneko azalean.

HAURRENDAKO AZAL LEHIAKETA


Bertze aldetik, haurrei zuzendutako portada lehiaketa deitu du aurten ere Udalak. Irabazlearen lana, programaren gibelego azalean argitaratuko da. Lesakako ikastetxeetan ari diren ikasleek parte hartzen ahal dute, 6 eta 12 urte artekoak. Helduek bezala, 25x20 cm. ko lana aurkeztu beharko dute kartulina edo paper lodian eta derrigorrez, «Lesaka. 2006ko Sanferminak» paratu beharko du. Handiek bezalaxe, maiatzaren 26ko 13:00ak baino lehen aurkeztu beharko dituzte lanak.

Lehiaketa irabazten duenak, bere lana programaren gibelego aldean ikusteaz gain, 300 euroko balioa duen taloia eskuratuko du, herroko dendetan eskolako materiala erosteko.



ARGAZKIAK: XAN HARRIAGUE

Asteotan egin diren ekitaldi pila laburbiltzeko hiru argazki: Nazioarteko Dantzaren Egunean herriko taldeek erakustaldia eskaini zuten; Bizikleta Eguna antolatu zuen Batzokik eta Lesakako Gaztik prestatutako Gazte Olinpiada.

 Toailak-Mantelariak-Oheko maindreak Eskolako haurren mantelak etab... bordatzen ditugu

Herriko bestetarako, kamisetak, eta blus peña bakoitzaren logotipo eta izenekin bordatzen ditugu

Eterni Plz. Berriz 4-12 eta ikusi bertako eskaintza!!! Tel: 948 637 660 - 689 481

 **TALLERES BERRIZAUN**
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA

Gasoila etxera eramaten dugu

Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

GOZZ-AIDO



31770 LESAKA (Nafarroa)

ETXALAR

Etxalarko Gida Turistikoa atera du Udalak herriari buruzko informazioarekin

Turista eta bisitariei zuzendua dago

Joseba eta Nerea

«¿Por dónde se va a Palomeras? ¿por esta carretera se llega a Zugarramurdi?» Hamaika aldiz aditu ditugu gisa honetako galderak karrika inguruan, bisitariak galdetuta. Hemendik aitzinera, lan pixko bat gutxiago izanen dugu etxalartarrok kanpotarren zalantzak argitzen. Bisitari eta turistei zuzendutako gida turistikoa atera du udalak, gure herriari buruzko informazio eta argibideekin.

MAPA, IBILBIDEAK, HISTORIA...

Gida turistikoa konpletua da. Etxalarren zer ikusten ahal den zehatz-mehatz agertzen du, leku interesgarrienak markatu eta hauen inguruko informazioa emanez. Bertzeak bertze, Gurutzea, Antsolokuetako labaderoa, elizako hila-

riak edota errotaren inguruko informazio antza aurkitu daiteke.

Herrian barrena nahiz mendialdean ibiltzeko ibilbide batzuk ere biltzen ditu gidak. GR11a, Argata-Santa Krutz, Azkua, Zentine-lako megalitoak, Usategiak... oinez edota bizikletan egiteko ibilbide interesgarriak dira hauek. Guztiak argazki dotoreekin lagunduta daude.

BEHARREZKO ZERBAIT


Astebururo izaten dugun bisitari kopuru handia ikusita eta, zer erranik ez, uda partean edo Aste Santutan, beharrezkoa zen gisa honetako Gida Turistikoa ateratzea. Duela urte batzuk atera zen lehenbizikoa, eta orain egin den hau lan osatuagoa da, argazki gehiagorekin eta informazio zabalagoarekin. Landa etxeetan

eta herriko ostatuetan aurkitzen ahalko dira, bertzeak bertze, Gida Turistiko hauek.

Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Gogoeta Eguna

Joan den martxoaren 29an, larunbata, buztutu zen Etxalarko Kultur Etxean Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatutako "Gogoeta Eguna". Izen honen pean, Bortzirietako hainbat euskalgintzako eragile bildu ziren, Bortzirietan euskararen egoera zein den azaltzeko eta etorkizunari begira zein pausu eman daitezkeen proposatzeko.

Goizeko 10etan hasi eta eguerdiko 2ak bitarte hainbat hitzaldi aditzeko aukera izan zen. Bertzeak bertze, Euskara Mankomunitatea osatzen duten batzorde



UTZITAKO ARGAZKIA

Etxalarren zer ikusten ahal den zehatz-mehatz agertzen du Gida Turistikoa, leku interesgarriak markatu eta hauen inguruko informazioa emanez.

desberdinen egoera eta erreflexioen berri eman zen eta euskararekin harreman zuzena duten zenbait eragileren gainean ere solastu zuten: Bortzirietako euskalgiaz, Euskal Herrian Euskaraz-ez, Xorroxin irratiaz, Bortzirietako Bertso Eskolaz eta Ttipi-ttapa aldizkari-telebistez... Goizeko txanda akabatzeko Amaia Antero Soziolinguistak "Euskara, zergatik eta zertarako? Eta Bortzirietan zer?" hitzaldia eskaini zuen.

Arratsaldean berri, lan taldeak osatu ziren Bortzirietan etorkizunari begira zein aurrerapausu eman daitezkeen aztertzeko.

Lehenbiziko aldia da Euskara Mankomunitateak honelako egun bat antolatzen duela, eta euskara teknikariak balarazio hagitz positiboa egin dute, «*bare hausnarketa beharrezkoa iruditzen baitzaigu eta hemendik aitzinera zein lan egin daitezken jakiteko balio izan digu egun honek*».

XATURETXEA

JATETXEA
 T: 948 637 027 - LESAKA

IRU BIDE
 Energia - Asaketa

 BERRITZULAN 3 - LESAKA
 Tel: 948 637 127

J. RAMOS
 zolak akutzilatuta eta barnizatzen ditut.

 Phone: 948 637 173 LESAKA • E-mail: jramos@373.com

PRIM, c.b.
 Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masalak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**
 Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

ARANTZA

Joseba Madariaga pilotaria txapelkun izan da Zizurren

Hiru haur bataiatuko dituzte maiatzaren 27an

Nerea ALTZURI

Urtaroa aintzinera doa. Nekazariak beuren ohiko lanak abiatu dituzte. Eguraldi ona izaten denean, baratze eta belagaiak lanerako aitzakia bilakatzen dira. Baratze eskinetan barazkien lekuak nonahi daude; eta belarra moztetan ari dira, maiatz belarrak deiturikoak egiten ari dira herritarrek: silok betez, silo bolak egi-

nez edo belarra idortuz.

Eta eguraldia lagun, maiatzaren 2an eta 3an Pasai Donibanan oporralditxoa iragan zuten Haur Hezkuntzako ikasleek. Etxalar eta Igantzik lagunekin batera, Jaizkibelgo magaleko Piraten etxean bi egun pasatu dituzte. Ederki pasatu omen zuten, eguraldi zoragarriarekin. Eskolako zaharrek eskiatzen izan zi-

ren martxoan; eta tar-tekoak, lehenengo, bigarren eta hirugarren mailako ikasleak maiatzaren 25ean eta 26an Donostian kanpaldia egingen dute.

Sendotzak eta bataioak

Maiatzaren 6an 25 aranztar eta igantziarrek sendotzako sakramentua hartu zuten. Maiatzaren 27an, Suharri eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Joseba Madariaga Arotzena, 17 urteko pilotariak, gazte mailako Zizurko eskuz banakako txapelketa irabazi du, lau terdiaren barrenean. Joan den apirilaren 22an Ekaitz NARBARTE goizuetarrekin finaleko partida 18-11 irabazi zuen. Urte hasieran abiatu zen Zizurko txapelketa eta lau pilotariren kontra aritu ondotik, final handia irabazi zuen. Txapelaz gainera, txapelketako pilotari onenaren saria ere eman zioten. Zorionak Joseba!

Oskitz Madariaga Otegi eta Xuban Taberna

Mutuberria bataiatuko dira elizan 12etan.



PERTSONAIA

Jose Luis ALTZURI MAIZ

Mendizalea omendu dute

Jose Luis Alzuri Maiz aranztarra Donostiako Egia auzoan bizi da familiarekin, azken 30 urte baino gehiago. Halere, bere herria aunitz maite du Jose Luisek. Mendia ere bere eguneroko hitzordua da eta eskualdeko nahiz Donostialdeko mendi aunitz ezagutzen ditu. Sasoi betean eta pausu bixian egiten ditu mendi itzuliak.

Duela 37 urte Donostiatik Arantzarako mendi itzulia antolatzea otu zitzaion. Segidan, Egiako mendizale kuadrila, (urte batzuk beranduago bere hiru seme alabak) ideira batu ziren. Orduz geroztik ohitura bilakatu da mendi itzuli hau urtero egitea. Lehendabiziko urtean eta aurten ez bertze, gainerakoe-

tan maiatzaren 1ean egin dute Donostia-Arantza ibilaldia. Aurten apirilaren 30ean, igandean egin dute biharamunean atsedean hartzeko. Lehen urtean 4 lagunek egin zuten eta aurten 24 mendizalek ibilbidea egin dute. Aldaketak-aldeketa, berezko ibilbidea gogorragoa eta luzeagoa baita, honako ibilbide hau egiten dute: Egia, San Markos, Zamalbide (Errenteria), Iturrioz, Altzibar eta Karrika (Oiarzun), Bianditz edo Eskas (Artikutzako guardaren etxea), Izu eta Arantzako herri kaxkoa. Goizeko 5etan abiatzen dira Egiatik eta zazpi ordu terdi pasatzen dituzte, Eskasen gosalduta. Gainera, Eskasera autobusa antolatzen dute, han-

dik Arantzara oinez etorri nahi dutenentzat. Urte mordoxka bada, Arantzako Aterpean dutxatu eta bazkaltzen dutela eta autobusez etxera itzultzen dira. Elurra, kazkabarra, bero handia, hotza... denetik izan dute urtez urte. Aurten eguraldi egokia izan zen mendian ibiltzeko. Bapo bazkaldu eta kafearen tenorean Jose Luis omendu zuten. 37 urtez ibilaldi hau egin eta ideiren sustatzaile delako. Kantuak, opariak eta emozio oneak izan ziren, minutu ziragarriak berarentzat. Bere Egiako lagunek eta Aterpekoek opariak eman zizkioten. Aunitz urtez Jose Luis! Orain, heldu den igandean, Arantzako itzulian izanen da.

ZDANSA

SEAT
VW
HYUNDAI
ALFA

ZDANSA

MARKA GUZTIEN KONPONKETA

Banarta, 2 - Alkalaga Industriakidea
LESAKA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

Tel. 948 634 179

ARANTZA

ATERPE
ALBERGIA

ALBERGIA - JATEXEA

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak

© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

ZJ

Zalain
jateketa

Hostala

14 logela,
bainu eta TBrekin

Er. Zabalde 100 • Tel. 948 63 08 67
Bera - Najarroa

IGANTZI

Ikasturte akabaila iragartzen dute kanpaldiek

Haurren Eguna ekainaren 1ean izanen da

Oskar TXOPERENA

Maiatza eta ekaina kanpaldi-hilabeteak izaten dira eskoletan. Eguerdia hobekuntza aprobetxatuz bizpahiru eguneko ateraldiak egiten dituzte ikasleek. Badira dagoeneko bi talde aurtengo kanpaldia egina dutenak: 3. ziklokoak Otsagabian izan ziren otsailan eski kanpaina zela medio, eta haur hezkuntzakoak maiatzaren 2a eta 3a Pasaian pasatu zituzten Piraten etxean. Gelditzen diren bi zikloak hurrengo asteetan joanen dira. 1. ziklokoak Donostiara joanen dira maiatzaren 25 eta 26an, eta, azkenik, 2. ziklokoak Zarautzen eginen dute egonalditxoak ekainaren 4, 5 eta 6an.

Bidebatez, aipa dezagun aurtengo Haurren Eguna, egun osoko egitarauarekin, ekainaren 1ean izanen de-

la, eta urteroko ikasturte akabailako eskursioa, berriz, ekainaren 23an. Aurten irakasle eta ikasleak bakarrik joanen omen dira, gurasorik gabe.

Bertso-paper Lehiaketa

Bortzirietan antolatzen den Bertso-paper Lehiaketan Igantziko Eskolako hiru haur izan dira sarituak. Adur Yancik 3. ziklokoen mailan lehenbiziko saria eskuratu zuen eta 2. zikloko Janire Loinaz eta Xabat Matxikoteren lanek epaileen aipamen berezia merezi izan zuten. Maiatzaren 10ean hartu zituzten sariak Beran.

Goizuetara mendiz

Ekainaren 3rako prestatu dute Igantziko Biltokik eta Goizuetako Umore Onak Igantziatik Goizuetarako mendi bi-



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Apirilaren 30ean, Nazioarteko Dantzaren egunean, Lesakan izan ziren dantzatzen dantza-jazz ikastaroetara joaten diren Igantziko haur eta gazteak. Inguru honetan antolatzen diren txirrundulari-lasterketa gehienek Lesakatik Piedadera doazen maldak igarotzen dituzte. Joan den astean, errate baterako, Bidasoako Itzuli famatuan parte hartu zuten gazteek ikuskizun ederra eskaini zuten.

daia. Joan nahi duenak Biltokiko egoitzan eman beharko du izena, maia-

tzaren 28a baino lehen. Bazkideek 22 € ordaindu beharko dute, eta gai-

nekoek 27 € (bazkaria eta itzultzeko autobusa ordaintzeko).



BORTZIRI
UNSIÓ ANAIAK

sukalderako altzariak

ERAKUSKETA

Bereau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891
Faxa: 948 637 511



TOLDOAK salmenta-konponketa- alokairua-errotulazioa
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak-venecianak
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK

Tel-Fax: 948 631 003
Bidasoa, 06 behea - BERA

BORTZIRIAK

Eskolak Euskalduntzearen aldeko 1.200 sinadura bildu dira

Hilaren 27an manifestazioa izanen da Donostian

ttipi-ttapa

Ez da oraingo kontua Bai Eskolak Euskalduntzeari ekimena; Euskal Herriko gaur egungo hizkuntza eredu politikagatik agortuta dagoela erakusteko Euskal Herriko hezkuntza alorreko eta euskalgintzako 15 eragilek babestutako kanpaina da. Abiapuntua honakoa du: hiru ikasletatik 2 ez dira euskalduntzen eskolaren bidez; ikasleen %38 baino ez da euskalduntzen eskolan. Hau ez da guztia, ordea, milaka haur eta gazteri urratzen baitzaie euskaraz ikasteko eskubidea, euskararen beraren egoera kolokan jarritz.

Hau dela eta, urtarrean sinadurak biltzeko kanpaina erraldoia

jarri zen abian, aldarrikapen argiarekin: Euskal Herri osoan herritar guztiei euskara jakiteko eskubidea aitortzea eta euskaraz ikasi ahal izateko eskubidea ziurtatzea, eremu anitzetan dauden oztopoak gaindituz. Kanpaina bukatzera doa eta Bortzirietan izandako emaitzak emateko moduan dago Bortzirietako Bai Eskolak Euskalduntzeari ekimena: dagoeneko 1.200 sinadura bildu dira. Hagitx balorazio positiboa egin dute sinadura kopuruarekin.

Sinadurak biltzeko epea bukatu bada ere, hilabete honetan guztian hainbat ekimen izanen dira Euskal Herrian barrena, kanpainaren funtsa eta leloa oroitarazteko. Bukatzeko ma-



ARTXIBOKOA

Urtarrilean hasi zen sinadura biltzeko kanpaina Euskal Herria osoan.

nifestazioa eginen da Donostian, maiatzaren 27an eta bertan parte

hartzeko deialdia egin du Bai Eskolak Euskalduntzeari Ekimenak.

Gogoeta eguna egin zuen Euskara Mankomunitateak

Joan den apirilaren 29an, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak gogoeta eguna egin zuen. Euskalgintzaren egoerari buruzko balorazioa egiteko, eta denona den zereginean, euskararen normalkuntzan alegia, etorkizuneko lehen tasun eta lan ildoari buruz aritzeko 35 lagun bildu ziren Etxalarko Kultur Etxean. Goizean, euskara batzordeen, euskalgintzaren eta mankomunitatearen egoera eta ibilbideari erreparatu zioten. Amaia Anterok solasaldia eskaini zuen. Hizkuntza ekologiaren inguruan ari da doktoregotza egiten eta ikuspegi horren berri eman zien bertaraturakoei. Arratsaldeko saioa ere berak dinamizatu zuen.

PINTURAK

Esmalteak · Bernizak · Lasurea urpintura · Margo klase guziak

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea

BONDEX urpintura
Esmaltea eta pintura plastiko ekologikoa

Zalain auzoa
Aceralia fabrikaren parean
Tel: 948 630 240
Mug: 627 622 333
BERA

PINTURAS

PIKABEA MOLINERO

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 · BERA

Pitti

estabazioak

Tel: 616 513 491

Mendabidea etxea, 34 · ZUBIETA

SUNBILLA

Ramon Latasaren eskultura egiteko zozketa antolatu dute

Bortz metroko altuera izanen du brontzezko irudiak eta 70.000 euro inguru gostako da

ttipi-ttapa

Euskal Herrian izandako aizkolaririk onenetako bat Sunbillako Ramon Latasa izan genuen. Horregatik, Sunbillako herriak eskultura bat egin behar dio. Diru aunitz suposatuko du eskultura hori egiteak, 70.000 euro inguru. Bost metro izanen ditu eta brontzezkoa izanen da. Eduardo Zancada, Madrileko eskultore famatuak egingen du. Egitasmo hau aintzinera ateratzeko eta herriari laguntzeko asmoarekin, komisi bat osatu zuten hiru herritarrek: Antton Espelosen, Francisco Errandonea eta Miguel Mari Latasak. Komisi

hau pixkanaka dirua lortzen ari da, bi urtez Eguberrietako loteria salduz, aizkolaritari buruzko liburu bat ere atera zuten eta oraingo honetan zozketa bat antolatu dute: lehenengo saria Peugeot 206 kotxea izanen da etabigara, bigarrena saria berriz, Kubara, bederatzia egunetarako bi pertsonendako bidaia. Zozketa, abuztuaren 19an egingen da, loteria nazionalaren azkeneko lau zenbakiak bidaiarentzat. Txartelak eskualdeko herri gehienetan salgai daude, ostatu eta dendetan. Txartel horiek



ARGAZKIA: «RAMON LATASA: BASOKO AIZKOLARIA» LIBURUTIK HARTUA

Herriak eman duen aizkolaririk famatuena izan zen Ramon Latasa. Hainbat proba eta apostu ikusgarri egin zituen.

erosiz, zozketan parte hartzeaz gain, eskultura hori egiten laguntzeko modu ederra da. Honez gain, lerro hauen bidez, zozketa hau egiteko diru laguntza eman duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete, Antton, Francisco eta Miguel Marik: Embalajes Martinez, Benta Miguel, Indart Anaiak, Computadoras Navarra Conasa, Benta Lapitxuri S L, Tuko altzariak, Camping Ariztigain, Telletxea Altzariak, Menditxuri, La

Rotonda Jatetxea, Benta Gora, Zalain Jatetxea, Benta Arrago Bide, Kasino Jatetxea, Sasoi Eskabazioak.

Gogoratu baita ere, eskultura egiteko bere borondatea eman nahi duenak, bi kontu irekiak daudela Nafarroako Rural Kutxan (zbk:3008 0050 39 1303275224) eta Caja Navarran (zbk:2054 0079 62 9138552320), eta emandakoa gutti bada ere, benetan eskertuko dela.

Ulibeltzak mendi taldearen ateraldia

Ulibeltzak mendi taldearen hurrengo ateraldia maiatzaren 28an izanen da. Oraingoan, goizeko zortzietan aterako dira, Fonda, Buztitz, Apagola, Gartzunborda eta Munitotik pasatu ondoren, berriro herrira itzuliko dira. Antolatzaileek erran dutenez, ibilaldi hau egiteko prestakuntza ona izatea komenigarria da.

1951tik tentzeria-etxea
Casa Cambra

**UDABERRIKO
KOLEKZIO
BERRIA**

albornoak • mantelak
edredoi nordikoak • toailak
edredoi-azal nordikoak
ohe estalkiak • kuxinak
maindireak

Tafalla, 13 • IRUNEA • 948 230 634

DONEZTEBE

Agorreta Musika Eskola ikasturte bukaera ospatzen ari da

Maiatzaren 27an Bidasoa aldeko Eskolen Topaketan parte hartuko du

ttipi-ttapa

Doneztebeko Agorreta Musika Eskola hiruhilabete bukaera antolatzen ari da eta horretarako hainbat ekitaldi prestatu ditu.

Maiatzaren 10ean, Donamariko Herriko Ostatuan kontzertua eskaini zuten Agorretako ikasleek.

Aitzinera begira, maiatzaren 26an, ortziraletan, Agorreta Musika Eskolako ikasleek pandero eta trikitixa audizioa eskainiko dute Doneztebeko eliz atarian, 18:00etan.

Maiatzaren 27an, larunbat goizean, Bidasoa aldeko Musika Eskolen Topaketa egingen da Hendaian eta, noski, Agorreta Musika Eskolako ikasleek ere parte hartuko dute, inguruko bertze hainbat eskolekin batera. Egun berean, baina 20:30etan, Agorreta Musika Eskolako ikasleek eskusoinua, tronpeta eta perkusio audizioak eskainiko dituzte Donezte-



ARTXIBOKOA

Amaia Iraola akordeolariak bertze garaipen bat eskuratu du, oraingoan Galizako Cedeiran.

beko eliz atarian. Beraz, egun luze bezain polita izanen da maiatzaren 27a Agorretako ikasleentzat.

Ekainaren 3an, la-

runbatean, Doneztebeteo karriketan trikitixa eta pandero soinuak hedatuko dira 19:30etan. Ordu bete beranduago, Doneztebeteo Mendi,

Hendaiako Entzun eta Ereñozuko Ozenki abesbatzek kontzertua eskainiko dute. Agorreta musika eskolaren ekimenez sortu zen Mendi abesbatzaren hamargarren urteurrena ospatzeko egingen den ekitaldi nagusi honetan, hamar urteotan abesbatzatzatik pasatu diren kide guztiak bildu nahi dira.

Ekainaren 16an, kurtsu bukaerako kontzertua eskainiko dute Agorretakoek Doneztebeteo eliz atarian, 18:00etatik aitzinera.

AMAIA IRAOLA IRABAZLE GALIZAN

Apirileko azken asteburuan Amaia Iraolak, Agorreta musika eskolako ikasleak, Certamen de Acordeones Villa de Cedeira izeneko sariak irabazi zuen Galizian. Modu berean, aipagarria da Axun Ezkurak, Agorreta eskolako ikasle ohiak, maiatzaren 12an kontzertua eskaini zuela Iruñeko Kontserbatorioan.

Sanpedro bestetako kartel lehiaketa ireki da

Ekainaren 28tik uztailaren 2ra ospatuko diren Sanpedro bestak iragartzeko kartel lehiaketa deialdia egin du Doneztebeteo Udalak. Kartelen formatua 50 x 60 centimetrokoa izanen da eta kartelaren baitan honako testua agertu beharko da: Doneztebeteo bestak, 2006ko ekainaren 28tik uztailaren 2ra. Doneztebeteo armarrira ere paratu beharko dute partehartzaileek. Kartelak, lehiaketa hauetan ohiak den sistema erabiliz, maiatzaren 29ko eguerdiko ordubata baino lehen aurkeztu beharko dira Herriko Etxean. Epaimahaia Besta Batzordeak izendatutako bortsu pertsonak osatuko dute eta sari bakarra emanen da, 150 eurokoa. Hori bai, epaimahaia saria hutsik ere utz dezake. Aurkeztutako karteletatik Udalak nahi dituen kopiatu egiten ahal ditu.

TAXIA

8 BIDAIARIEN DAKO TOKIAREKIN

PLATAFORMA ELEKTRIKOZ EGOKITUTAKO IBILGAILUA

BI GURPIL AULKIRAKO ETA BOST LAGUNENDAKO

676 55 36 56
948 45 19 53

Karrika Nagusia z/g 31746 ZUBIETA

Etxeko Ardi Gazta

Lizun

GAZTANDEGIA

Petxenekoborda · SUNBILLA · Tel: 948 450 862

Belarra

jatetxea

948 450 306

Ameztiakarrika
DONEZTEBE

STIHL® TIMBERSPORTS

S E R I E S

LEHIAKETA NAZIONALA maiatzak 28, DONEZTEBEn

11:00etatik 13:30etara **FRONTOIAN**

- KIROLARIAK:**
- Donato LARRETxea
 - Patxi LARRETxea
 - Ion IRIARTE
 - Xabier MINDEGUIA
 - Felix ETXEBERRIA
 - Josetxo TELLECHEA
 - David BORRELL
 - Sergio MANDAZEN



Motozerrak • Sasi garbitzeko makina • Soropil-mozteko • Heskai-mozteko • Osagarriak • Ordezko piezak • Segurtasun jantziak • Aholkularitza

STIHL edo VIKING aukeratu baduzu
makinarik hoberena baino aunitzez gehiago eramanen duzu

Zure lorategirako behar duzun guztia zuek aski hurbil duzu
STIHL eta VIKING banatzaile Ofiziala

JOSE LUIS SAN MIGUEL ALZUGARAI

Merkatarien karrika, 11 • 31740

DONEZTEBE • NAFARROA

Tel.: 948 450 711 • Fax: 948 450 711



STIHL®

Antolatzailea: **JOSE LUIS SAN MIGUEL TAILERRA**

VIKING®

Laguntzailea: **DONEZTEBEKO UDALA**

BERTIZ

Natur Bideen Eguna antolatu du Partzuergoak maiatzaren 20an

Alkaiaga, Lesaka eta Igantziko Benten artean ibilaldiak egingen dira

ttipi-ttapa

Bertziko Partzuergo Turistikoak antolatuta, Natur Bideen Eguna ospatuko da larunbat honetan, maiatzaren 20an. Alkaiaga, Lesaka eta Igantziko Benta lotuz egingen dira ekitaldiak. 10:00etan bizikleten irteera egingen da Alkaiagako harrobitik. Ordu berean, oinezko ibilaldiaren irteera egingen da Lesakako zubitik, Bereautik, trikitixen laguntzarekin. Ibilbidean zaldiz edo tren chu-chuan ibiltzeko aukera ere izanen da. 11:30etan hitzaldi informatiboa egingen da Bereau ostatuan.

Jakina denez, Bertziko Partzuergoaren aspaldiko asmoa da garai bateko Bidasoako trenbidea moldatu eta Bide



ARTXIBOKOA

Larunbat honetako Natur Bideen Egunen tren chu-chuan ibiltzeko aukera izanen da trenbidean.

Berdea egitea. Egitasmo horren barrenean, joan den urtean Onbor-

di eta Telleriko tuneletako zolaketa paretak moldatu ziren eta argia

jarri zen. Lan horiek ikusteko aukera izanen da Natur Bideen Egunean.

LANA

642 langabetu eskualdean

Martxoan baino 42 guttiago

ttipi-ttapa

Langabeziak, urte hasieratik daraman behetirako martxarekin segitu zuen apirilean ere. Martxo hondarrean 684 lagun apuntatuak ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoan. Hilabete beranduago kopuru horrek 42 lagunetan beheiti egin zuen eta 642 ziren. Adinka, 25 urtetik goitiko emakumeak dira langabetuen erdia baino gehiago, 342. Adin tarte horretako 223 gizaseme daude langabezian. Gazteei dagokienez, 25 urtez beheitiko 41 emakume eta 36 gizonek emana dute izena emplegu bulegoan,

Lan arloka, langabetu kopururik handiena zerbitzuetan dago, 358 lagun. Industrian 198 dira, erakuntzan 52, nekazaritzan 14 eta aitzinetik lanik egin gabeko 20 pertsona daude langabezian.

ETXE PAREKATUAK SALGAI

Ikastola eta eskolaren artean, Elizondon bertan. Merkatuzelai parejean, 2 Solairu, garaiea, lorategia...

eraikitzen ari dira

BALLARENA ERAIKUNTZAK
Santiago kalea, 60-B - ELIZONDO
Telefona: 948 45 23 95

musika, ezkontzerako alararako, dispedidak, postak

telefono: 553 709 976

SANTESTEBAN Tailerrak

Laguntza teknikoa, DONDUTERRA
Tel: 948 452 300, 452 452 301

Kotxe ia berrietan sekulako eskaintza:
Clio, Modus, Megane II, Scenic, Megane, Grand-Tour, Laguna, Espace, Kangoo

Bigarren eskuko kotxeetan ere eskaintza oso zabala:

- Renault Clio 1.6, 3 atekoa
- Renault Megane RXE 1.9 D
- Renault Megane Coupe 1.9 DTI 100 CV
- Renault Laguna 2.2 TD 110 CV
- Citroen Xsara 1.9 TD 3 atekoa
- Ford Fiesta 1.4, 3 atekoa
- Opel Astra TD 1.7 5 atekoa
- Opel Astra 2.0, 3 atekoa
- Opel Vectra 1.6 16v familiarra
- Opel Vectra 1.9D 100 CV
- Peugeot 306 XT
- Rover MG ZR 1.8 160 CV, 3 atekoa

MALERREKA

Merkataritzan Euskaraz kanpaina burutu du Euskara Zerbitzuak

135 establezimendu bisitatu dira

ttipi-ttapa

Apirilean, Malerrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, bi urtetik behin egiten duen "Merkataritzan euskaraz" izeneko kanpaina burutu du. Malerrekako dendak eta publikoari arreta eskaintzen dioten establezimendu guztiak bisitatu ditu. Lana, bi fasetan eraman dute. Lehendabiziko bisita batean, establezimenduaren hizkuntza egoera jaso dute. Bide-nabar, Mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzuen berri eman zaie, hizkuntza aholkularitza, testuen itzulpena eta maketazioa, eta establezimenduetan erabiltzen diren material desberdinen banaketa, hala nola, zabalik edo itxita kartelak, ordutegiak, jatetxeetako kartak, tabakoa debekaturik, edo erre daiteke, erreklamazio orria, eta merkealdiak kartelak, bertzeak bertze. Bigarren bisitan berriz, eskatu zuten materiala banatu zaie.


Donezteben, Sunbilla, Elgorriagan, Saldiasen, Urrotzen, Beintza Labaien, Narbarren, Iturenen, Ezkurran, Legasan, Oitzen, Zubietan eta Donamarian, 135 establezimendu bisitatu dira. Gehienek, 29 hain zuzen ere, itzulpenak eskatu dituzte, izan jatetxeko kartak, saltzeko dituzten produktuaren zerrenda, edo testu informatiboak.



Malerrekako establezimendu gehienek itzulpenak eskatzen dituzte.

U L KUTX EN G ILU

I z n Itz



ur tu uzu

I N E T S I	E N S
I S TINK K G	ILU
T S FINK	
,25	
,2 T. E.	
I N E T S I	E N S
E E F E ENTZI K G	ILU
1	Euskarazko testuak itzulpenak eskatu dituzten establezimenduetan.
- Euskarazko testuak itzulpenak eskatu dituzten establezimenduetan.	- Euskarazko testuak itzulpenak eskatu dituzten establezimenduetan.
- Euskarazko testuak itzulpenak eskatu dituzten establezimenduetan.	- Euskarazko testuak itzulpenak eskatu dituzten establezimenduetan.

www.euzkara.com

**MALERREKAKO
RUR L KUTXA**

GOIZUETA

Sari garrantzitsuak eskuratu dituzte eskolako ikasleek

Txinoko pestak giro ederrean joan ziren

Esteban AROTZENA

Nafarroako Gobernuak antolatzen duen literaturgintza lehiaketan garrantzi handiko sariak lortu dituzte aurreko herriko eskolako ikasleek. Patxi Etxeberriak eta Uxua Huizik lehenengo saria eskuratu dute, olerki atalean batetik eta etnografian besteak. Garazi Loiarte-arentzat izan zen narratibako bigarren saria. Bertsolaritzan berriz, eskualdeko lehiaketak egin dira eta Jon Zozaiak eta Julen Arotzena saridunak suertatu dira.

Espainiako Hezkuntza Ministeritzak antolatutako Eskola Ibiltarien ekimenean ere parte

hartu dute LHko 5. eta 6. mailakoek, astebete doan igaroko dutelarik Valentziako parajeak ezagutzen. Bertakoekin ez ezik, Salamankako eta Asturiasko ikasleekin elkartuko dira Goizuetakoak. Gai hauekin bukatzeko esan, irratia antolatu zutela eskolan martxoaren 8tik 12ra, ondoko argazkian ikus daitekeenez. Herritar askok parte hartu zuten urteroko ekimen honetan.

Seme-alaben heziketa

Seme-alaben heziketa gaitzat hartuta, Gurasoen Elkarteak eta eskualdeko prebentziko teknikariak antolatuta-



ARGAZKIA: ENERITZ AROTZENA

Txinoko festetako herri kirol jaialdiko protagonistak.

ko hitzaldiak burutzen ari dira maiatzeko lau ostegunetan. Ainhoa Saiz da emalea eta hitzaldiak 17:15etan hasten dira eskolan.

Txinoko pestak

Txinoko pestak gero eta handiagoak direla idatziz aurreko alean, bete-betean asmatu genuen. Jendea erruz, giro paregabea eta programa aberatsa. Javier Mari Txoperenak bota zuen itxaferoa, eta hori ere aipatutako handitasunaren eredu da, be-



re auzoko festa eguna zela eta propio etorri baitziren Kaliforniatik Javier Mari eta bere an-drea Linda Goizuetara.

Zubiondoko mus txapelketan Arano-Ereñozuko bikoteak nagusitu

ziren: Pello eta Emaitz txapeldun eta Iñigo eta Boni bigarrenak. Miren Terexek eta Rosa Mari eskuratu zuten hiru-garren saria eta lehenengo herritarrak izate-aren ohorea.

ARESO

Ane Miren Barandarain eta Xabi Erasoren bertso-paperak sarituak

Eskolarteko lehiaketan aipamen bereziak jaso dituzte

Juana Mari SAIZAR

Eskolarteko bertso paper lehiaketan 2. zikloko ikasleetan 3. eta 4. maila Nafarroako guztien artean, Ane Miren Barandarainek aipamen berezia jaso du eta 3. ziklokoa 5. eta 6. mailakoa, Xabi Erasori ere aipamen berezia egin diote. Hauek guztiek,

heldu den astean Leitzan egiten den mendialdeko Eskolarteko Bertso Paper Lehiaketan jasoko dituzte sariak.

Santa Kruz

Maiatzaren lehenbiziko igandean eta eguraldiak lagunduta, Santa Kruz ermitako erro-meria beste urte batez

ospatu zen. Gurutz-bidea egin zen eta ermitara ailegatu eta ondoren, hamabietan, meza santua ospatu zuten han bildu ziren 30 lagunek. Ama Birjinari loreak eskaini zizkieten herriko lau neskek eta bukatu ondoren, ohitura den bezela, ardoa ogia eta gazta jan ziren.





20
06

Salbatoreak
maiatzaren 24tik 28ra

IRURITA
eta
URDAZUBI



Herriz herri,
bestaz besta

JOAKIN HARATEGIA

ongi pasa bestak!

948 581 077 • Agorriberri • IRURITA



LIZASOAIN ZURGINDEGIA

Zura-aluminio lehoak, atsek, eskalerak,
telatuak, amariok, trinak etab...
aurreraentuz konpromisurik gabeko

Zaldubia Industrialdea • IRURITA • Tel.: 948 45 20 77

Irular

margook

Laumagari etxea
Tfnoa: 948 452 250

ARKUPE

Guzotegia - Txokolategia

Txokolataa almenbra
eta urrakin
Tarta bereziak
Etxeko izozkiak

ongi pasa bestak!

IRURITA - Tfnoa: 948 452 021 - 948 580 059
ELIZONDO - Tfnoa: 948 452 393

Composites Baztan
Poliesterezko lanak



- Inpermeabilizazioak: terrazak, igerilekuak, depositoak...
- Fosa septikoak, koipe banatzaileak
- Depositoak fabrikatzen ditugu.
- Karrozerien errebestimenduak, furgonetak, erremolkeak, traktoreak
- Era gutziatako molde eta pieza egiten ditugu, produkzioarako.
- Kanalonak, neurria eginak, altzairua bano egonkorragoak.
- Produktu desberdinak, karmelen karkasak, saskiak, txakuren kaxak...

Tel.: 948 581 824 • Faxa: 948 581 852
email.: compositbaztan@terra.es

Zaldubia Industrialdea, Iruña - Dantzarinea errep.
31730 IRURITA

Salbatoreak

maiatzaren 24tik 28ra

IRURITA

Asteazkena **24**

BEZPERA



12:00etan: Altxaferra, Kalejira
Baztango Galtariekin
20:00etan: Ezkil-Jotzea
21:00etan: Baztan Zopak
24:00etatik 04:00ak arte:
SALABERRIekin Dantzal-
dia Karpan

Ortzegune **25**
SALBATORE EGUNE

10:00etan: Kalejira Baztango Galtariekin
11:00etan: Meza Nagusia
(Herriko Koroak abesturik)
12:00etan: Herriko dantzarien
erakustaldia
13:00etan: Herrikoentzat hamaiketako
18:00etan: Goitibehera lasterketa
20:00etatik 22:00ak arte: Dantzaldia
EGAN Taldearekin
22:00etan: Mutildantzak, ondotik Dan-
tza Herrikoiak Baztango Galtariekin
24:00etatik 04:00ak arte: Dantzaldia **EGAN** Taldearekin



Goitibehera lasterketa
Salbatore egunean
izanen da surten ere

Ortzileria **26**

HAUR ETA JUBILATUEN EGUNE

10:00etan: Kalejira Baztango Galtariekin
11:00etatik 13:00etara: Haurrendako jolasak

14:00etan: Haur eta Jubilatuen bazkaria Gazteen bazkaria Baigorri
 15:30etan: Haurrendako jokoak
 16:30etan: Kalejira txarangarekin
 19:00etan: Txokolate jatea
 20:00etatik 22:00ak arte: Dantzaldia **JOSELU ANAIK** Taldearekin
 22:00etan: Mutildantzak, ondotik Dantza herrikoiak Baztango Gaitariekin
 23:00etatik 24:00etara: Kontzertua **UFESTUEK** Taldearekin, ondotik Dantzaldia **JOSELU ANAIK** Taldearekin

EGAN, DRINDOTS, JOSELU ANAIK... talde eza-gunekin dantzatzeko aukera ederra Iruritan. **UFESTUEK** talde Bastandarrak ere kon-



Larunbata 27

11:30ean: **JARLEKU** Kaleko antzerkia
 12:00etan: Kalejira txarangarekin
 14:00etan: Herriko bazkaria txarangak lagundurik Bertsolariak: **IRAZU** eta **SOROZABAL**
 18:00etan: Nesken eta Gizonezkoen Aranabiako XI Txapelketaren finalak
 20:00etatik 22:00ak arte: Dantzaldia **DRINDOTS** Taldearekin
 22:00etan: Mutildantzak, ondotik Dantza herrikoiak Baztango Gaitariekin
 01:00etatik 03:00ak arte: Dantzaldia **DRINDOTS** Taldearekin

2006ko bestel amaiera eman ez, urteroko Salbatore txirrindulari saria, kalejirak, Mutildantzak eta Dantzaldiak, ikusi eta gozatzeko aukera izanen du bertar-



Igandea 28

10:00etan: LIII. Salbatore Txirrindulari saria
 11:00etan: Meza Nagusia
 12:00etan: Kalejira txarangarekin
 14:00etan: Ausartenendako Zinger eta Txistor jatea Baigorri
 18:30etan: **ORTZADAR** Dantzari Taldearekin ikuskizuna
 20:00etatik 22:00ak arte: Dantzaldia **EGAN** Taldearekin
 22:00etan: Mutildantzak
 22:30etatik 1:00ak arte: Dantzaldia **EGAN** Taldearekin eta Besta amaiera

Maderas GOMEN

ogei para bertekit



Era guztiko atak, jantak eta inguruzak
 Eguer berak: tropikak, hartak, gaztanak, pinak, lakak...
 Terinak eta zolak: hartak, gaztanak, pinak...
 Tablerak, marimak, harrak, maderak...

Tel. 948 580 645 - Zaldubia Industrialea - IRURITA

pintatze lanak
 pladurra
 isolamenduak



Angel V.
 tlf. 629317086

OLARI Jatetxea

Jatetxea halze egokituarekin hornitua



ONGI PASA BESTAN

Tel.: 948 45 22 54 • IRURITA

Faustino ETXABE tailerrak

Autoen konponketa

BESTA ON BATZUK PASA //

Tfnos: 948 599 038 - ZUGARRAMURDI

Indianoa Baita

Ostatua

Ongi pasa herriko bestak II

Tfnos: 948 59 90 21 - URDAZUBI

Angel BENGOTXEA eraikuntzak

Era guztietako argin lanak

948 599 484 - URDAZUBI

SANTIAGO VILLARES

GARRAIOAK

• Luzerna
• Agotza eta lastoa
• Luzerna-pentzu granuluaren
SALMENTA eta EXPORTAZIOA

948 59 91 34
909 41 87 77
URDAZUBI

IRIARTEA BENTA

Chez Payo

Ostatua - Autozerbitzua - Larrua...

Tfnos: 948 599 048 - DANTXARINEA - URDAZUBI



JOSENEA zerbitzu estazioa

Besta ederrak pasal

948 599 090 - URDAZUBI

ZUBIONDOA

OSTATUA
AUTOZERBITZUA
OROIGARRIAK

Ongi pasa bestak II

Tfnos: 948 599 027 - DANTXARINEA

ANASTASIA OSTATUA

Janari Denda

948 599 027
URDAZUBI



IRIGOIENEA

Ongi pasa bestak II

948 599 267 - URDAZUBI

www.irigoiena.com • reservas@irigoiena.com

Salbatoreak

maiatzaren 24tik 28ra

URDAZUBI

Asteazkena **24**

20:00etan: Txupinazioa

22:00etan: Afaria berezia izango da. Lehen, bigarren eta hirugarren adinetako jendearentzako Karretero Ostatuan. Ondotik, gaueko giroa alaitzeko **MODESTO**rekin dantzaldia



Pezsiku Arcotegi, Javier Apestegia, Xexi Altmiet, Erroka?, Juan Justoretxebetako, Jose Antonio Diharasurri, Gervasio Jaurena, Antonio Beltza, Battista Aleman, J, Martin Jose Barreneche, Humerregildok Iriarte, Martin Iribarren, Paulo Jaurena.

Ortzeguna **25** SALBATORE EGUNE

11:00etan: Meza nagusia

12:00etan: Herriko pilotalekuan aperitiboa izanen da **ZAZPIAK BAT** dantzari taldearekin eta Gaiteroekin.

16:00etan: Esku pilota partidak izanen dira.

Sebastien Sorhuet - Alain Yustede

Olivier Arozarene - Ellande Alfaro

17:00etan: Haurrentzako jokuak izanen dira **JOKULANDIAREKIN**

22:00etan: Bertze urteetan bezala izugarritzko paella izanen da. Paella jan birtartean eta gau osoan animazioa **KIKI BORDATXO** taldearekin.



Bettitta Aleman,
Martín Jose
Barrereño,
Hermenegildo Iriarte,
Pedro Barrereño,
Aizoon Díezasasri,

Ezkonduen eta ezkongabeen arteko futbol partiduak
eta herritarren arteko Euskal Jokoa antolatu

Ortzilarea 26

- 12:00etan: Futbol partida ezkonduak, ezkongabeen aurka
- 13:30etan: UGARANA elkartearen bazkaria Koxka jatetxean
- 14:00etan: Dianak Dantzarineako auzoan zehar
- 17:30ean: GORRITI eta bere animaliak
- 20:30ean: Euskal Jokoa herritarren artean
- 21:00etan: Sagardotegi mugikorra trikiliarekin animatua
- 00:00etan: Dantzaldia TXIMELETA taldearekin.
- 04:00etan: Kontzertua ALARMA SOCIAL taldearekin. Odiñ!

Larunbata 27

- 10:00etan: KONTRABANDIS-
TEN LASTERKETA
- 13:00etan: Aperitiboa Bertsola-
riekin batera.
- 14:00etan: Betiko Zikiro Jatea
TXORONGO txarangarekin alai-
turik. Ondotik opari zozketa. Eta
horren gibeletik, kalejira herri-
ko ostatu guztien inguruan, he-
rri azpitik herriaren goraino, al-
koholemia froga barna. Gauean
xingar jatea
- 17:30ean: Haurrentzako jokuak
JOKULANDIAREKIN
- 00:00etan: Dantzaldia GAUBELA taldearekin



Kontrabandisten lasterketak
emango dio hasiera zikiro
egunari. Zikiro jatearen
ondotik, herrian barna kale-
jira eta

JOSUNE
Ileapaindegia
gizon eta emakumeentzako
948 599 028
URDAZUBI

ETXELEKUA
ETXKO BEHI eta ARDI GASNA
Zugarramurdiako karretera
948 599 169 • URDAZUBI

Benta • Ostata • Jatetxea
MIKELENBORDA
Ongi pasa bestak!!
Tel: 0034 948 599 045
31712 DANTXARINEA


ARMUA
Jatetxea
Tel: 948 599 131 Zugarramurdi errep. 3. km
URDAZUBI

KIMERA
ILEAPAINDEGI MIXTOA
Frantziako errep. (Pelo Benta)
0034 948 599 062
31712 DANTXARINEA
ongi pasa bestak!!

La KOXKA
jatetxea
ongi pasa bestak!!
948 599 042 • URDAZUBI


XARETA
OSTATUA
DANTXARINEA

**ON EGIN JANAK
ETA
KLATERIK EZ EDANAK
BESTA EDERRAK PASA**
Dantzarinea • URDAZUBI
Tel: 948 599 496

PULPERIA BENTA

Janaridenda - ostatua

Besta ederrok pasat!

☎ (0034) 948 599 046 • DANTXARINEA

ARRETXEA BENTA

Tabakodenda - Janaridenda

Jantxidenda - Zapatadenda

Tel.: 948 599 018 • Faxa: 948 599 015

DANTXARINEA ESTAZIO ZERBITZUA

Tel.: 00 34 948 599 250
DANTXARINEA

LAPITXURI

merkataritza guzua

Lurrindenda



Arropa denda



BENTA LAPITXURI
DANTXARINEA
EGUNERO 8:30-19:30 IREKITA
Tel: (0034) 948 599 093

Motozerra erakustaldia, Nafarroako sokatira txapelketa 4x4. Urezko zezena... izanen du ikusgai bestetako azken egunean bertaratuko denak



Battista Alessi, Martin Jose Barronetxe, Gervasio Jaurena, Gabriel Urtizberna, Josemari Plaza, Xanti Altruist, Javier Apestogia.

Igandea 28

16:00etan: IKUSGARRIekin, zuzen zuzenean motozerraren bitartez egur mozketan, artisau lanak eta tailak sortzeko.

Arratsalde osoan JOXE ANGELeK alaiturik

17:00etan: NAFARROAKO SOKA TIRA TXAPELKETA 4x4

17:30etan: Taloak

20:30etan: Urezko zezena

21:00etan: Herriko besten bukaera Gaixoa.ni

22:00etan: Besta bukaerako afaria



Juan Miguel Ibarra, Martin Iribarren, Juan Justoreribordakua, Xanti Altruist, Martin Jose Barronetxe, Erreka?, Luis Mari Sansóhera, Hermenegildo Iriarte, 7.

BYRKAITZEA

- OSTATU
- ERRETEGIA

ONGI PASA!

Zugarramurdiko bidea
URDAZUBI
948 599 280



frexka
zaitez gurekin!!

ALDIZKARIAK • KATALOGOAK
BOLETOAK • INPRIMAKIAK
TXARTELAK • EGUTEGIAK
ARGITALPENAK • FOILETOAK
LIBURUAK • KARTELAK
LOGOTIPOAK...

KULTURKARI

publizitatea  zerbitzuak

Andutzeta 12, 31760 ETXALAR
Tfnoa: (0034) 948 63 54 58
www.ttipi.net • kulturkari@ttipi.net

LANDIBAR AUZOAN URDAZUBI - NAFARROA

Otordu handiak • Famili jiterak



Ugarana jatetxean

Kinto bestak • Koadrila afariak
Despediak...



Kupela sagardotegian

Trago eta pinxo goxoak



Mikela ostatuan

Besta, saltsa eta dantza...



La Nuba diskotekan



**Etorri, probatu
eta gozatu**

**Erreserbak:
(0034) 948 599410**

betiko

PVC eta aluminio aroztegia

• PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHOEN FABRIKAZIOA • SALMENTA ETA INSTALAZIOA



- NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK
- DISEINU ETA MODELO EZBERDINAK
- BANAKAKO SOLUZIOAK
- ISOLAMENDU TERMICO ETA AKUSTIKOAK
- ENERGIA AURREZPENAK

XIV. GASNA eta ARTISAU en FERIA

ETXALARen ekainaren 4on



EGITARAUA

Goizean zehar haurrentako sormen
tailerrak plazan
10:30 Artisauen erakusketa
12:30 Herriko trikitilariak
13:30 Gasna lehiaketako sari banaketa
14:00 Herri bazkaria
18:00 Herriko dantzarien saioa

Egun osoan
herriko
emakumeen
eskularen
erakusketa
Andre Mari
Elkartean.



Antolatzailea:

ALTXATA
Kultur elkartea

Laguntzaileak:



LEITZA

Jon Oronoz herritarra da Bai Euskarari kanpainako teknikaria

Beste aldetik, olioa biltzeko kontenedoreak jartzen hasiak dira

ttipi-ttapa

Jon Oronoz Zubillaga ari da asteotan Bai Euskarari ziurtagiriak banatzeko hirugarren kanpaina bultzatzen Arano, Areso, Goizueta eta Leitza. «Lehenik ziurtagiri berriak sustatzeko lana egiten dugu, 4-5 astez. Maiatza hasieran gutunak bidali genituen, gero telefonoz deitu eta bisitak egiten ditugu. Gero, beste hiru astez, lehendik ziurtagiria dutenengana joko dugu, ebaluazio lanak egin eta ziurtagiriak berritzeko». Arano, Areso, Goizueta eta Leitza 76 ziurtagiri banatu ziren iaz. Jon Oronoz esanetan, Euskal Herriko beste lekuetakoekin alderatuz «Leitzaldeko erantzuna punta-puntakoa izan zen». Horregatik, aurten, «orain daudenak kontzientziazten segitu eta mantendu eta beste 10-15 gehiago egitea positiboa litzateke», Jonen ustez. Ziurtagiri banaketa ekain hasieran egiten da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Jon Oronoz, Leitzaldean egiten ari den hirugarren Bai Euskarari kanpainako teknikaria da.

Bide Berdeen Eguna

Bide Berdeen Eguna arrakastatsua suertatu zen eta eguraldi eguzkitsua aprobetxatuz, 800 bat lagun bildu ziren Plazaolaren geltoki inguruan. Ibilaldijendetsuena ere umeei zuzendutakoa izan zen. Pailazo talde batekin,

Leitzako estazioetik Erreka auzorako joan-etorria egin zuten.

Egun horretako beste berezitasuna, Iñaki Perurenaren Peru Harri parkerako bisita izan zen. Oraindik ez du parkea erabat bukatua, baina eguerdiaz geroztik, bi autobus txiki jendea eramaten eta ekartzen

ibili ziren. Estazioan hamaiketakoa banatu zen eta Skifaia Folck taldeak giro ederra jarri zuen.

Olio bilketa

Hemendik aurrera, hilean behingo olio bilketa zerbitzua desagertuko da, olio biltzeko kontenedoreak jartzen hasi baitira.

FLASH

Patxi Arrazola auzoko lanak

2004. urtean hasi ziren Patxi Arrazola auzoaren hirigintza lanekin eta ia bukatu direla esaten ahal da. Maiatz hasieran zolaberitu zituzten kaleak eta behin betiko bukatzeko, zola seinalizatzea eta seinale bertikalak jartzea bakarrik falta da. Patxi Arrazola auzoko aparkaleku eskasiaren arazoari ere aurre egin asmoz lanean hasiak dira: igerilekuaren eta Arkixkil futbol zelaiko aldagelen artean hasiak dira aparkalekuak egiten. Dena prest dagoenean, hogei bat autorentzat aparkalekuak geldituko dira.

Batzarretik alde egin zuen UPNk

Maiatzaren 5ean egin zen udal batzarretik alde egin zuten UPNko zinegotziek, jende artean, Larraingo hautetsiek agerian jarri zuten kartela alkateak kendera zuelako. 182.2 artikulua aplikatuz dagozkienez zinegotziak itzultzea eskatzen zuten karteletan Larraingo hautetsiek. UPNko zinegotziek kartela kenderazteko eskatu zioten alkateari, baina honek beraien iritzia agertzeko eskubidea zutela erantzun zuen. UPNko zinegotziak batzarra utzi zuten.

Ark_b arkitektura bulegoa
 Celia Lana Ronz
 Huarfe Gotzai 7 - 31880 Leitza - 645006478 tel
 Eraikuntza - Hirigintza - Udal-aholkularitza

txokoberri
 Aluminioan espezializatuak
 • Aroztegi Metalikoa (lelhoak, steak, barandak,....)
 • Parket
 Eneko eta Alfredo / Donamaria / Nafarroa Tel: 618 681 924

luis cestau baraibar
 arkitekto teknikoa
 leitza 607204485
 luesba @ msn.com

gaztelu scl
iturgintza
 kalefakzioa • saneamendua • gasa
 © 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

lanbideheziketa

KALITATEKO PRESTAKUNTZA · ENPRESARENTZAKO BERMEA · LANBIDE ETORKIZUNA

IZENA EMATEKO EGUNAK
Golko Maila, maiatzaren 29tik ekainaren 6ra

For
2013
2013
Nafarroako
Gobernua

For
2013
2013
Nafarroako
Gobernua

BAZTAN

Irurita-Elizondo saihebidia egiteko lau aukera aurkeztu dira

Aurrekontuak bederatzi milioi terdi euro inguruak dira

ttipi-ttapa

Irurita eta Elizondo arteko saihebidia egiteko dauden lau aukerak aurkeztu zituen apirilaren 26an Alvaro Miranda, Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabideetako kontseilariak. Aurrekontuetan ez da aldaketa handiegirik merkeenak eta laburrenak 9,49 milioi euroko aurrekontua izanen du eta 5,86 kilometro izanen ditu; garestiena, 9,72 milioi eurokoa, aldi berean luzeena ere izanen da, 6,21 kilometroekin. Hauxe da Elizondoko Plan Municipalean onartutakoa eta Elizondo eta Iruritako herriguneetatik hurbilen pasatzen dena.

Lau aukerak "teknikoki bideragarriak" direla jakinarazi zuen kontseilariak. Orain, ingurumenean izanen duten eragina aztertzen ari da. Lau-sei hilabeteren buruan, proiektuaren erakusketa publikoa eginen da. Aurkezten diren ale-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Herrilan kontseilariak Irurita-Elizondo saihebidia egiteko aztertzen ari diren lau aukeren berri eman zien udal ordezkariak.

gazioak aztertu ondotik, aukerarik egokiena hautatuko da eta horren gainean idatziko da behin betiko proiektua. Herrilan departamentutik adierazi dutenez, "lanak 2007. urtea akitu baino lehen ez dira hasiko". Lanak lehenbailehen has daitezten, Balleko Udalak nahi duen alternatiba adostea gustatuko litzaioke Nafarroa-

ko Gobernuari. Hori baitrazatua aukeratzera koan, Elizondora sarbi-

de egokia izateak lehenetasuna duela uste dute Iruñean.

Elizondoko Iturri-Ederra elkarteko presidente berria Maite Arregi da

Maite Arregi da Elizondoko Iturri-Ederra Ur Elkarteko presidente hurrengo lau urteetan, apirilaren 29an egindako batzarrean erabaki zenez. Amagoia Sansiñena, Alfredo Astiz, Felix Mena eta Jesus Mari Karrikiri dira batzorde kide berriak. Batzarrean etxeko uraren prezioa bi xentimo igaita erabaki zen (litroa 0,22 euro) eta industria-koa lau xentimo (litroa 0,31 euroan da orain).



Baztango Eguna ospatu dute Mexikon


Aurten ere, maiztaren 1ean ospatu dute Mexikon bizi diren baztandarrek Baztango Eguna. Alfonso aita emandako meza-oren ondotik, Baztanzopak, Txuritabeltz, Pipperrada, azpizuna saltan eta sagar-tarta izozkiarekin bazkaldu zuten. Bazkal ondoan, Virginia Aleman Baztango alkateak igorritako eskutitza irakurri zuen Juan Jose Arrietak. Gero omenaldi xume bat eskaini zitzaion Luis Alberto Barbarena soinujoleari, Aita Alfonso apezari, Alberto Carrera Euskal Etxeko abesbatzako zuzendariari eta Nafarroako Kutxako ordezkariari, bazkariko ardoa eskaintzeagatik. Gero, musika aditu, dantzan, musean edo herri kirolean aritzeko txanda ailegatu zen. Mariatxiek ere bere lana aski ongi bete zuten besta baztandar-mexikar honetan. Indarrak berreskuratzeke, antolaketa batzordekoek bokadilokak prestatu zituzten afarirako eta honela, besta goizaldera arte luzatu zen.

ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK
Perrilan egindako haragi eta arrainak
Tel: 948 453 413 Fax: 948 453 378 - ARIZKUN

abartan
CERRAMIENTOS • ITXITURAK

PVC eta ALUMINIO
ateak • leihoak • kontraleihoak
manparak
zeramikak (fabrikako prezioetan)
kontsumo gutxiako kalefakzio elektrikoak

Santiago 56. baje • 31700 ELIZONDO
Tel: 948 561 152 • 687 264 025 • 696 970 725
makene@terra.es



Mila eragaberrerentzako puzte lanak

Mila eragaberrerentzako puzte lanak

Mila eragaberrerentzako puzte lanak

Mila eragaberrerentzako puzte lanak

Mila eragaberrerentzako puzte lanak

MILA ESKER ZUEN LAGUNTZAGATIK

Zuei esker, Nafarroak aurten 130 milioi euro inbertituko ditu Herri Lan, Garraio eta Komunikazioetan, 242 milioi euro Toki Administrazioan eta 126 milioi euro Nekazaritza eta Abeltzaintzan

HURBILAGO. EROSOAGO. PERTSONALIZATUAGO

Errentaren eta Ondarearen aitortpena 2005
2006ko maiatzaren 5etik ekainaren 26a arte

Zergadunari erantzuteko telefonoa 901 50 51 53
www.navarra.es



URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

Zaborra behar den ontzian sartzeko eskaria egin dute

Ongi bereizten ez bada, birziklapena trabatu egiten da

Margari eta Koro

Urdazubi eta Zugarramurdiko zaborrak eta hondakinak, Bizi Garbia Herrien Arteko Sindikatik biltzen ditu. Elkargo honetan bilduak daude, gure bi herriekin batera, Ahetze, Ainhoa, Arbona, Basusarri, Bidarte, Donibane-Lohizune, Senpere eta Sara. Urte hasieran, birziklapena egin ahal izateko zaborrontziak jarri ziren. Herriarren lana da klase bakoitzeko zaborrak eta

hondakinak bereizi eta bakoitza bere edukiontzian sartzea. Baina, nonbait, lan hori ez da behar bezain ongi betetzen Urdazubin eta Zugarramurdin. Adibidez, botoilak eta berinazko ontziak biltzen dituen edukiontzi berdeetan ezin da baxerarik, portzelanarik edo loreontzirik sartu; edo plastikak edukiontzi urdinean ezin da poliestirenozko ontzixkak, esnekien ontziak, gaineko estalkiak,



ARTXIBOKOA

Edukiontzi dotoreak jarri baldin badira ere, oraindik ez omen dugu zaborra behar bezala bereizten.

zakuak, plastikazko filmak, olio botoilak edo jostailuak sartu. Etxeko kartoinak eta janari brikak biltzeko jarri diren edukiontzi gorrietan ez dira kartoinezko ontzi zikinak edo ondarrekila-

koak sartu behar ezta paper zikinik ere pape-raren edukiontzian.

Bertso-afaria Azketan

Akelarre elkarteak antolatuturik, apirilaren

29an Bertso afari bat antolatu zen Zugarramurdiko Azketa jatetxean. Jexux Mari Irazu eta Amets Artzallus izan genitugun gure artean, eta egia erran, izigarriko giro pullita sortu zuten.

ZALDUBI
SUKALDEKO MOBLEAK
Martin Lizasoain Adarza
Etxetresnak · Armairuak
Komunak · Manparak
Tel: 948 580 562 · Faxa: 948 581 859
Zaldubia Industrialdea · 31730 IRURITA

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturrizte autob. Tfn: 948 592 043
ORNOZ · MUGAIRI

HERRIKO
ETXEREN
IDENTEGIE
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542519
Maizak eta Vermique
CASA

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio irarte 33, 1ºD · 31700
948250371 luñea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

Eskisaroi
JATETXEA
Jaime Urrutia
Tfn: 948 580 013
ELIZONDO

ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Irarte karrika
ELIZONDO
Tel: 948 581 807 · 948 581 853

APARAN, S.A.
BONIKOLAIA eta ZURAK
· Melamina taulak
· Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
· Txapaz estalitako taulak
· Entzimerak
· Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
· Pintura eta berrizak
· Bainurako mogleak eta osagarriak
· KIT mogleak, esku-erremintak, etab.
Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

AZPIEGITURAK

Eskualdeko hainbat lan osatzeko dirulaguntzak onartu ditu Nafarroako Gobernuak

2005-2008 Toki Azpiegitura Planaren barrenean

tipi-ttapa

Nafarroako Gobernuaren 2005-2008 Toki Azpiegitura Planaren barrenean, eskualdeko zenbait lan egiteko edo osatzeko dirulaguntzak banatu dira.

Aranon, 2004ko Planaren emandako dirulaguntza gaurkotu da, hilerria handitu eta berrietzeko. Inbertsioak 10.034,77 euroko igoeira izan du eta honi, 2.809,89 euroko dirulaguntza berria dagokio. Gaur egun, 700 metro koadro dituen hilerriak eta ormigoizko kaleak eginez txukunduko da. Sarreran estalpea ere egingo da eta argi eta ur-hornidura berriak ezarriko dira.

Elgorriagan, balneariora doan bidea zola-berritu eta argia jarriko da. 186.259,96 euroko inbertsioa egingen da eta Azpiegitura Planetik 93.125,48 euro jasoko dira. Zola egokitu eta moldatzerakoan, tentsio-altuko sarea bideratzeko tubo sartuko da eta 15 farola jarriko dira. Harrizko bankuak,

baranda eta seinaleak ere jartzeko asmoa dago.

Goizueta eta Aranon, 13.507 inbertsioa aurrikusia dago, 1.000 litroko edukiera duten zaborrontziak erosteko. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza 9.240 eurokoa izanen da.

Leitzako hilerria moldatzen 26.887,15 euroko inbertsioa egingen da eta Iruñetik etorriko den dirulaguntza 18.346,53 eurokoa izanen da. Gaur egun dagoen pasabidea moldatu eta beste berri bat egingen da zeharka. Eskailerak ere jarriko dira.

Malerrekako Mankomunitateak 105.000 euroko dirulaguntza hartuko du. Gibeletik kargatzen den kamioi konpaktatzailea erosten 150.000 euro gastatuko ditu Mankomunitateak.

Zubietan, azkenik, ura ponpatzeko bi bomba jarriko dituzte Aurtizko depositotik Zubietakora ura eramateko. Horrekin batera, 2.200 metro tubo jarriko di-



ARTXIBOKOA

Argindarra ailegatu da Urritzateko Bidegorrietara

Urritzateko Bidegorrietako Juan Mariskok, Mari Carmen Etxebertz-ek eta Jose Mari eta Antonio semeek piletan eta gasean gutiago gastatu beharko dute hemendik aitzinera. Maiatzaren 11n argindarra jarri zieten, Acciona Solar enpresak egindako instalazioari esker. Inaugurazio ekitaldian, Javier Etxarte Nafarroako Gobernuako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria, Virginia Aleman Baztango alkatea eta hainbat zinegotzi izan ziren.

tuzte, ura ekartzeko egin den zuloa aprobetxatuz eta beste 500 metro motu independentean sar-

tuko dira. Denetara 365.018,32 euroko inbertsio ekarriko du obra honek, eta horretatik

252.319,39 euro Nafarroako Gobernuak dirulaguntzarekin ordainduko da.

ATERA ZAITEZ LABIRINTOTIK!

ZURE NEGOZIOA SORTZEAREN ABENTURAN EGINDAKO IBILBIDEA




ERAKUSKETA IBILTARIA

ASOITZ
AGOSKO KULTUR ETREA
MARTXOTIK IRA 1405

ELIZONDO
ELIZONDOKO KULTUR ETREA
MARTXOTIK IRA 1105

AITSASU-ALSASUA
AITSASU KULTUR ETREA
MARTXOTIK IRA 1105

LEXUNEBERRI
LEXUNEBERRI KULTUR ETREA
MARTXOTIK IRA 1105

BIRUTA BIRITEZU ETA BIRAZU BI GURU HOTEL BATEAN

empleate

2005 proiektuak zure enpresari

Nafarroako Gobernuak

EUROPAKO GAZARTE PLURITAS

Enpresa Ekimenen Laguntzeko Programa

amedia

TEDE

coim

CEIN

EKOK

Iruñerri

NAFARROAKO RURAL EKITSA

fe

CAMARA

FA

Laguntza: 2005-2008 Toki Azpiegitura Planaren barrenean. Inbertsioa: 2005-2008 Toki Azpiegitura Planaren barrenean.

SENPERE

Oxtikenekoak elkarteak besta giroan ospatuko du hamargarren urtebetetzea

Milaka euskaltzalek bat egin dute aurten ere Iparraldeko ikastolekin

Franck DOLOSOR

Badira 10 urte janneko, Oxtikenekoak elkarte kulturala sortu zela. Oxtikenea etxea duela 10 urte erosi zuen herriar talde batek eta gerotzik ekitaldi andana egin da osoki xahar berriua izan den etxe hortan. 10 urtez, euskal kultura zabaltzea izan da elkarte eta etxe horren ardatz nagusia, hala nola olerki egunak, kantu xaharren egunak, hitzaldiak, herriko besten animazioak eta aterpea eskaintzea herriko edozein elkarteri bilkurak edo animazioak egiteko.

Hamargarren urte-

betetzea ospatzeko, besta eguna prestatu dute. Eguerdian bazkaria izanen da eta arratsaldean bi kontzertu izanen dira Tapia eta Leturia, eta Ekintza taldeekin.

Herri Urrats

Aurten ere, Euskal Herri osoko euskaltzaileen topalekua bilakatu da aintzira.

Aurtengo irabaziekin Ziburuko eta Larzabaleko kolegioen zati bat ordainduko dituzte. Ziburuko kolegioa buruilean irekiko da eta Larzabalekoa heldu den urtean altxatuko dute. Searsak 3,6 miliun euro-



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Pilotari onak izan dira beti herrian eta biharko kirolariak ere erne prestatzen ari dira pilotazaleen laguntzarekin.

ko prestamua egin du 20 urtez bi ikastegiak pagatzeko.

Bateria fanfarreak

Bateria fanfarren lehiaketa ospatu zen Senperen maiatzaren lehen asteburuan.

La Joyeuse Chevancelaise, Charentes Maritimes departamentuko taldeak irabazi du zoi gehiagoka hori eta beraz heldu den urteko lehiaketa haiek antolatu dute.

Layrac-eko gaskoin gazteak eta Senpereko Emak Hor bigarren eta hirugarren izan ziren. Bi egunez, musika doinuak



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Ravon jaun andereak urrezko eztaiak ospatu dituzte berriki. Ohiturari jarraikiz, herriko etxearen oroitarri bat ukan dute.

nagusitu ziren herrian. Emak Hor-eko gazteek musikari eta kantari dohaiak erakutsi zituzten

Xalbadarren heriotza kantatuz bertze musikari batzuen laguntzarekin.

Zure lan aukerak kezkatzen zaitu?

Industria Ekipoen Mantenimenduan Goi Mailako Heziketa Zikloa

Zikloetako ikasle guztiek, **100%ak**, lana lortu dute inguruko enpresetan praktikak bukatu ondorengo bi hilabeteren barnean. Titulu hau erdietsi ondoren zuzenean sar zaitzake unibertsitateko karrera teknikoetan.

Informazio gehiago: www.prite.cfnavarra.es/iesbera
Toki Ona BHI
 Eztegara pasealekua 34, 31780 Bera
 Tel. 948 625 000

Ikasketak. Hezkuntza sistema:

```

            graph TD
            A[BATXILERGOA (COU)] --> B[UNIBERTSITATEA]
            A --> C[GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK]
            D[ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK] --> C
            C --> E[LAN MUNDUA]
            B --> E
            F[Prestakuntza kurtsoa] --> C
            G[Sarbide proba] --> C
            
```

SARA

Sarako Itzulia ekainaren 4an iraganen da

45 kilometro inguruko ibilbidea
egin beharko dute mendizaleek

Laetitia eta Sandrine

Sarako mendi itzulia ekainaren 4an iraganen da, Axuria mendizale elkarteak antolatutarik. Gutti gora behera 45 kilometroko ibilbidea izanen da. Izen emaitzak egunean berean egingen dira, abiatu aintzin 6:30etik goiti sarako polikiroldegian 10 euro ordainduz. Abiatzeak 7ak eta 8ak artean egingo dira eta heltzeak arratsaldeko 4ak eta 8ak artean izanen dira. Ibiltari bakotzak parte hartzeko txartel bat izanen du (beharrezkoa jan eta edan tokietan eta kontrol gunetan). Ibilbidea egiteko guttienez 9 ordu edo gehienez 12 ordu beharko dira. Martxahori bi urteetatik behin

antolatua da. Xehetasun gehiago kirol orrietan.

Merkatua

Bigarren aldiko merkaturia antolatua izanen da herriko plazan ostegun guziz. Ekainaren 1ean hasiko da eta irailaren bukaera arte.

Pleka trinketeko pala txapelketa

Pala txapelketaren finalak jokatu dira apirilaren 29an:

1 maila: Suzanne Carricaburu, 50; Bergerot Halsouet, 41.

2 maila A: Sorhouet Halsouet, 50; Oyarzabal Hanchordoqui, 42.

2 maila B: Meharu Parris, 50; Harriet-Harriet, 40.



Zazpiak Bat Kanboko Dantzari Ttiki Egunean
Urte guziz bezala Euskal Dantzarien Biltzarrak antolatu du Maiatzaren 8an Dantzari ttiki Kanbon. Elgarretaratze hortan Ipar euskal herriko mila haur bildu dira, Saratik 30 haur parte hartu dute.

3 maila: Tellechea (Patxi Jaureguik ordezkaturia) Inchausti, 50; Orgozo-Ourkia, 44.

"Pleka gizon plaza gizon" Ortiz Laurent izan da. Partidak bukatu eta bazkari baten inguruan segitu dute eguna giro onean.

Dromedarioaren sortzea

Gertakari arraro bat iragan da "Etxola" animalieen parkean, dromedario bat sortu delako. Jabeek, Kattin eta

Martine ahizpek, Gaxuxa deitu dute. Animale honen inguruan, mundu guzitik etorritako bertze 300 bat animale ikusten ahal dira. Parkea denari idekia da, zirkuitu bat antolatu dute. Haien ibilaldian bisitariek aurkitzen ahal dituzte informazio desberdinak animaliei buruz. Parkea egunero idekia da goizeko 10:00etatik 19:00ak arte, apirilaren hasiaren hasieratik urriaren bukaera arte. Lizarietako bidean aurkitzen da.

Errugbia

Aurten Sarako errugbi elkarteak erreserba talde bat osatu du, ezin pentsatua zena batzuentzat duela hilabete batzu. Gainera sasoin eder bat egin du erreserbak, maiatzaren 6an larunbatarekin erdi finala jokatu dute Mendikoten, Pomarez taldearen kontra, bainan galdu dute 14-11. Zorionak erreserba taldeari, eta heldu den urte arte!



Grupo Tanatorio Taldea

IRACHE

Maldaerrek S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



EZKONTZAK

Jose Javier Alduntzin Gastearena eta **Miren Gurutze Otxoteko Telletxea**, Leizakoa eta Lesakakoa, apirilaren 28an.

Miguel Angel Zambón Di Genaro eta **Esther Romano Gonzalo**, Mar de Platakoa (Argentina) eta Berakoa, apirilaren 22an.

Xabier Iantzi Mitxelena eta **Patricia Errandonea Astondoa**, Berakoak, apirilaren 29an.

Xabier Erkizia Martikorena eta **Marta Font Cifre**, Lesaka eta Bartzelonakoa, Beran, apirilaren 29an.

David Edmond Joachim Ollivier eta **Marie-Hélène Lissardy**, Sarakoak, maiatzaren 6an.

Tomas Kortea Sarratea eta **Izaskun Iparagirren Etxarte**, Ziga eta Elizondokoa, maiatzaren 6an.



SORTZEAK

Ugaitz Ugartemendia Mendizabal, Leizakoa, apirilaren 23an.

Oihane Txoperena Zabaleta, Leizakoa, apirilaren 29an.

Sharik Yuyarik Lopez Bonilla, Leizakoa, apirilaren 29an.

Oier Castilforte Cantero, Berakoa, apirilaren 18an.

Julene Mitxelena Lasaga, Berakoa, maiatzaren 2an.

Naiara Ubiria Sunsundegi, Lesakakoa, apirilaren 18an.

Victoria Jimenez Etxeberria, Oieregikoa, apirilaren 26an.

Izaro Arretxea Mikeo, Iturengoa, apirilaren 21ean.

Ane Telletxea Iraola, Igantzakoa, maiatzaren 4an.



HERIOTZAK

Felicitas Zabaleta Aierdi, Leizakoa, apirilaren 29an, 86 urte.

Julia Etxenike Laurnagarai, Arraiozkoa, apirilaren 29an, 82 urte.

Juana Indart Taborga, Arizkungoa, apirilaren 30ean, 89 urte.

Paula Askunze Etxart, Amaiurkoa, maiatzaren 1ean, 84 urte.

Francisco Alduntzin Zabaleta, Leizakoa, maiatzaren 3an, 79 urte.

Juan Etxeberria Egui, Berakoa, maiatzaren 5ean, 89 urte.

Jose Ordoki Mitxelena, Igantzakoa, maiatzaren 5ean, 86 urte.

Jaione Mutuberria Mendikoa, Narbar-tekoa, maiatzaren 6an, 18 urte.

Germaine Weyland, Sarakoa, maiatzaren 2an.

Michel Txapartegi, Sarakoa, maiatzaren 7an.



Maria Luisa SORONDO ZAPIAIN

2006ko apirilaren 28an hil zen Irunen, 95 urte zituela.

Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizi garen artean ez zaitugu ahaztuko.

ZURE FAMILIA.



Jaione MUTUBERRIA MENDIKOA

(1987-XII-19/2006-V-06)

Zure irri ta alaitasunez maitemindu nintzen eta berehala nere bihotz barruraino sartu zinen. Elkarrekin momentu onak eta txarrak pasatu ditugu baina beti aurrera, familian ere onartua eta maitatua izan zara. Nere zoriontasuna osoa zelakoan eta orain zu betirako agurtu beharra, ez zaituz inoiz ahaztuko. Bihotzean eramango zaitut Jaione maitia. Muxuak.

ZURE MUTIL LAGUNA JOSEBA CORTEA ETA FAMILIA.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

KULTURKARI
Andutzeta 12, Etxalar
Tfnoa: 948 63 54 58

MENDIA

Arantza, Baztan eta Sarako Itzuliak eginen dira asteotan

Ibilbide gogor bezain ederrak eskainzen dituzte

Aitor AROTZENA

Mendian ibiltzea maite dutenek eta gure eskualdean egiten diren mendi itzulietan parte hartzeko gogoia dutenek aukera ederra izanen dute datozen hiru igandetan, Arantza, Baztan eta Sarako Mendi Itzuliak eginen baitira bata bertzearen ondotik.

ARANTZAKO ITZULIA MAIATZAREN 21EAN

Arantzako Ekaitza elkartek eta Gazte Asanbladak antolatutako Arantzako Itzulia igandehonetan, maiatzaren 21ean eginen da. Herriko plazatik abiatu eta leku berean akabera emanen zaio ibilbideari. Bitartean, Arrata errekatik jautsiz, Aranibar baserria, Unanu, Itsas-zelaia, Izu, Oilargata, Ibintza, Ekaitza, Illurdi, Mairubaratzeta eta Zepuruko tontorrak pasatuko dituzte ibiltariek. Guzira 30 kilometroko itzulia izanen da eta Mendaurrera joateko hautua egiten dutenek kilometro pare bat gehiago eginen dute. Ohikoa denez, ibilbidean hornidura eta osasun zerbitzuak eskaintzeko postuak izanen dira.

Ibilbidean parte hartzeko izen-ematea goizeko 6:30etik 8:00etara eginen da eta zortzi euro ordainduko ditu partaide bakoitzak. Informazio gehiago,

www.arantza.net web-orrian edo 617 23 9361 eta 647 759140 telefonoetan eskura dezakezu.



BAZTANGO XIII. MENDI IBILDIA MAIATZAREN 28AN

Baztango Mendigoizaleek antolatutako Baztango XIII. Mendi ibildia maiatzaren 28an eginen da, Elbete eta Elbete artean. Parte-hartzaileen izen ematea eta irteera Elbeteko plazan izango dira, goizeko 6:30etik 7:30era. Aitzinetik izen emateko aukerarik ez da izanen.

Izen ematearen truke 10 euro ordaindu beharko dute federatuek eta 12 euro federatuak ez daudenek. Martxak Elbeten du irteera eta bukaera. Ibilbidearen luzera 34 kilometrokoa da eta guztira egin beharreko malda edo aldapek 1.700 metroko desnibela osatzen dute.

Ibilbidean igaroko diren lekurik garrantzitsuenetakoak hauek dira: Elbete, Oketako lepoa, Burgako gaina, Arrainetako gaina, Xorroxineko ur jautzia, Nabileko gaina, Arizkungo Ordoki, Ameztiko gaina eta Elbete.

Ibilbidea erregulatuzeko 4 kontrol ezarriko dira: Oketako lepoan, Basabarren, Iñarbegin eta Ordokin (Arizkun). Izan ere, Baztango Men-



Arantza, Baztan eta Sarako itzulietan parte hartzen dutenek, 30 kilometro baino gehiagoko ibilaldiak izanen dituzte.

digoizaleek azpimarratu nahi dute ibilaldia erregulatua izanen dela eta ez dute, inola ere, lehia-kortasuna bultzatu nahi. Azkenik, erran beharra dago, ibilbidean hainbat dolmen eta monumentu megalitiko ikusi eta Baztan Ballarako paisaietaz disfrutatzen dituzte aukera izanen dela.

SARAKO ITZULIA EKAINAREN 4AN

Sarako mendi itzulia ekainaren 4an iraganen da Axuria mendizale el-

karteak antolaturik. Gutti gora behera 45 kilometroko ibilbidea izanen da. Saratik hasiko da eta Zuhalmendi, San Inazio, Iturriarreta, Larrun, Lizuniaga, Ibanteli, Lizarrieta, Saibeturi, Urioko erreka, Atxuria, Zugarramurdi, gainekomenta tokietan barrena ibiliz, berriz Sarara itzuliko. Izen emateak egunean berean egiten dira, abiatu aintzin 6:30etik goiti sarako polikiroldegian 10 euro ordainduz. Abiatzeak 7ak

eta 8ak artean egiten dira eta heltzeak arratsaldeko 4ak eta 8ak artean izanen dira. Ibiltari bakoitzak parte hartzeko txartel bat izanen du (beharrezkoa jan eta edan tokietan eta kontrol gunetan) Ibilbidea egiteko guttienez 9 ordu eta gehienez 12 ordu beharko dira. Martxa hori bi urteetatik behin antolatua da. Xehetasun gehiago www.axuria.monsite.wanadoo.fr helbidean edo turismo bulegoan 0559542014.

PILOTA

Koteto Ezkurra Maisu eta Urrutia ikasle aurreratua

Doneztebarra saldiastarrari doi-doi nagusitu zitzaion Insalus Masterreko finalean

A.A.

Koteto Ezkurra erre-montean izan den pilotaririk onena dela inorgutitik jartzen du zalantzaz: 9 aldiz jantzi du buruz buruko txapela eta binaka jokatzeko duenean, abantaila handia ematen du gibelean. Erremontearen mito bizi da.

Aurten, lehen aldiz, erremontelaririk osoena erabakitzeke Insalus Masterra antolatatu da. Pilotariek, hirunaka, binaka eta banaka aritu behar izan dute, kantxa osoan nahiz zazpiaren barrenean. Koadroko lau pilotari onenak hasi ziren: Koteto bera, Iñaki Lizaso, Zeberio II eta Eizagirre. Lizasok min hartu eta Migel Mari Urrutia saldiastarrak hartu zuen bere lekua.

Batzuen ustez, txapelketa hau handiegi heldu zitzaion Urrutiari, duela hiru urte debutatu zuela kontuan hartuz. Baina Saldiasko atzelariak onenen artean dagoela erakutsi du. Lehenbiziko partida aisa galdu egin zuen Ezkurrarekin, baina bigarrenean Zeberio II mende-an hartu eta finalerako txartela eskuratu zuen. Apirilaren 29an jokatu-tako finalean, berriz ere Koteto izan zuen aurrez aurre Urrutiak. Baina oraingoan lehia estua izan zuten. 30-31 aurretik izan zen Saldiaskoa, baina azkenean, Ezkurra txapeldun handiaren jakinduria nabarmendu eta 35-32 nagusitu zen. Meritu handia izan zuen Kotetoren partidak ere, 14-11ko-



ATLETISMOA

Antonio Etxeberria iraileraile sakako Herri-sterketan

este Iruña talde- Antonio Etxeberria iraileraile nagusitu maiazaren 7an iraileraile sakako, Batzoki el- iraileraile hamabigarren iraileraile z antolatutako Ra- Maritxalar herri las- iraileraile etan. Hain zuzen, iraileraile Maritxalar bera iraileraile berriarekin bate- iraileraile an zen lasterketa iraileraile an, baina azkene- iraileraile ste Iruñaakoaren iraileraile dura-punta gai- iraileraile zuen. Hirugarren iraileraile ua Hossain Kaa- iraileraile nerentzat izan zen. iraileraile akumeen artean, iraileraile a Talavera izan iraileraile garaile, Uxue Frai- iraileraile a Lurdes Oartzan iraileraile n aitzinetik. Kate- iraileraile a ezberdinetan 200 iraileraile kalari atera ziren.

SKEET OLINPIKOA

Jone Fagoaga lesakarra Munduko Kopan arituko da

Maiatzaren 18an eta 19an Egipton jokatu da

A.A.

Maiatzaren 18an eta 19an Egipton jokatu den Skeet Olinpikoko Munduko Kopan parte hartuko du Jone Fagoaga tiralari lesakarrak. Proba honen ondotik, denboraldiko hitzordurik garrantzitsuena etorriko da: abuztuan, Kro-

azioako Zagreb hiriburuan jokatu den Munduko txapelketa. Bertan, 2008ko Pekingo Olinpiadetan parte hartzeko hiru txartel banatu-tuko dira.

Jone Fagoaga ez da tituluak irabazteaz aspertzeko. Apirilaren 22 eta 23an Irunen joku-

zen Skeet Olinpikoko Espainiako Kopa irabazi zuen. Gainera, aitzinetik berak zuen Espainiako errekorra berdindu egin zuen, 75 plateretik 66 hautsi baitzituen. Aitzinetik, Erregearen Kopa irabazi zuela kontuan hartuz, garaipenez garaipen dabil lesakarra.



UTZITAKO ARGAZKIA

Jone eta Itsaso Fagoaga ahizpak, Espainiako Kopan txapeldun eta txapeldun ordea izan ziren.

Joneri, etxean bertan atera zaio kontrariorik gogorrena. Izan ere, 16 urte bete berriak

dituen Itsaso ahizpa bigarren izan zen Espainiako Kopan, 59 plater hautsita.

AGENDA egunez egun

MENDI ATERALDIAK

ARANTZA

Maiatzaren 21ean Arantzako Itzulia antolatu dute Ekaitza elkarteak eta Gazte Asanbladak. Xehetasunak 32. orrian.

BAZTAN

Maiatzaren 28an Baztango XIII. Mendi Ibilaldia antolatu dute Baztango Mendigoizaleek, Elbete-Elbete ibilbidearekin. Xehetasunak 32. orrian.

SARA

Ekainaren 4an Sarako XI. Itzulia antolatu du Axuria mendi taldeak. Xehetasunak 32. orrian.

SUNBILLA

Maiatzaren 28an Fonda, Buztitz, Apagola, Gartzunborda, Munitto, Sunbilla ibilbidea antolatu du Ulibeltzak mendi taldeak.

ERAKUSKETAK

BERA

Maiatzaren 6tik 20ra Jose Mari Pastor Elgorriagaren «Artzai» erakusketa Kultur Etxean. Asteleheneetik larunbatera 18:00etatik 20:00etara.

Maiatzaren 22tik 26ra Elkarrekin ekiten diogu erakusketa antolatu du Kultur Etxean Cederna-Garalur elkarteak, 16:00etatik 18:00etara.

ELIZONDO

Apirilaren 24tik maiatzaren 20ra «Xabierren Mundua» erakusketa zabalik da Arizkunenean, Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Departamentuaren babesean.

Maiatzaren 2tik 20ra «4 urtaro» erakusketa eskainiko du Gardena elkarteak Arizkunenean.

TELEBISTAKO TXOKOA



ORTZEGUN ETA ORTZIRALEKO SAIOETAN

Yoga eta babes zibileko boluntarioen lana ikusgai

Yoga, lasaitzeko eta norberak bere burua hobekiago kontrolatzeko disziplina da. Eskualdean, oraindik gutti ezaguna da, baina ausart batzuk astean ordu pare bat deikatzen diote. Ttipi-ttapa Telebistak jakin nahi izan du zer gordetzen den yoga hitzaren gibelean. Hori dela eta, ortzegunean, maiatzak 18, gaueko 21:05ean, Begoña Altzugarai Lesakako yoga irakasleak zer den, nondik datorren eta nola praktikatzen den azalduko digu.

Biharamonean, maiatzaren 19an, ortziraleko erreportaian, babes zibileko bolondresen egunaren karia egin den simulakroa eskainiko

du ttipi-ttapa telebistak, arratseko 21:05etik aitzinera. Berako Arkaitza harrobietan, harri erorketa izanda, auto batzuk azpian harrapatu ditu. Babes zibileko sail ezberdinek nola lan egiten duten ikusten ahalko duzue. Zakurrekin, gizakien miaketa, suaren itzaltzea, kolpatuak izan direnekin lehenbizi egin beharrekoak, psikologoena eta bertze hainbertze irudikatu zituzten maiatzaren 13an eta horiek ikusteko modua izanen duzue ttipi-ttapa telebista sintonizatuz gero. Berako suhiltzaile parkeak ehun urte bete dituela eta egin da Babes Zibileko Bolondresaren Eguna Beran.

DISKAK



Se habla español

Lendakaris Muertos

GOR, 2006

Lendakaris Muertos, haien esanetan talde komertzial bat, eta zentrokoa, gure kontzientziak astintzeko asmoz itzuli da (hala bedi) kanta sorta berriarekin, eta ziurrenik gandor bat baino gehiago tentetuko da. Sortu zirenetik bi urte eskas pasa badira ere, Lendakaris Muertosek ibilbide meteorikoa gauzatu du: Mirafuenteseko gaztetxean Hurto taldearekin lasai aritu badira, Salamancako Multiusos aretoan Exploited bidelagun izanda ere ez dira kikildu. Berezkoa duten ezinegon horrekin 50 kontzertu eman dute 2004ko martxoa eta 2005eko azaroa bitartean. Ondoren, «Se habla español» honetan aurkezten dituzten hamasei kanta berri hauek konposatu eta grabatzeko astia izan dute, beraien lanekin segituz. Garai hauetako punkiak nola-koak diren ulertzeko abidibide argiagorrik!

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA

(Apirilaren 28tik maiatzaren 5era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 38,00 € (-1,00)

Zerri gizona
1,150 € kilo. (=)

Zerramak:
0,470 € Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3, 80 (=)

1.koa 3,58 (=)

2.koa 3,39 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 3,92 (=)

1.koa 3,70 (=)

2.koa 3,47 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruak 220,00 (=)

idixkoak 288,00 (+18,00)

Aretze nabarrak:

urruak 180,00 (=)

idixkoak 225,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,95/3,05

Zaldi-behorrak: 1,70/1,90

Bildotsak: €/k

6-8 kiloak: 5,00 /5,90

8-10 kiloak: 3,90 /4,60

AGENDA egunez egun

JAKIN BEHARREKOAK

Bio eta Eco izendapena ekologikoki egindako produktuentzat bakarrik

Bertzeek izena aldatu beharko dute uztailaren 1a baino lehen

2006ko urtarrilaren 4an, joan den urteko abenduaren 30eko 1614/2005 Erret Dekretua indarrean sartu zen. Dekretu honen arabera, «ekologiko», «biologiko», «organiko», «bio» eta «eco» izendapenak, produkzio ekologikoari buruzko arauak errespetatuz lortu diren produktuek bakarrik erabiltzen ahal dituzte.

Orain arte, «eco» eta «ekologiko» izendapenek produkzio ekologikoaren bitartez egindako produktuak identifikatzen zizuten. «Bio» izendapena, aldiz, modu librean erabil zitekeen, eta ez zuten bakarrik produktore ekologikoek erabiltzen. Beraien produktuak izendapen hori erabiliz komertzializatzen zuten enpresa batzuk ere erabiltzen zuten, kalitate itxura eman asmoz, baina produkzio



Orain arte «Bio» izendapena modu librean erabil zitekeen. Enpresa batzuk izen hori erabiltzen zuten kalitate itxura eman asmoz, baina produkzio ekologikoak eskatzen dituen baldintzak bete gabe.

ekologikoan behar diren metodoekin inolako zerikusirik gabe. Beraz, produktu hauen fabrikanteek izendapena aldatu beharko dute, legea betetzeko. Araudia urtarrilaren 4an indarrean jarri zen arren, bio marka 1991. urteabaino lehen eskatu zuten enpresek urte honetako uztailaren 1a arteko epea izanen dute beraien produktuen izena aldatzeko.

Irache Kontsumi-

tzaile Elkartetik merkataritza zentro ezberdinetara jo dute, izen aldaketarekin hasi ote diren jakiteko. Enpresa batzuk beraien marken izenak aldatu dituzte eta «bio» jarri ordez «bi» jarri dute. Bertze batzuetan, adibidez Bio Don Simon zukueta, Pascual-en Bio Frutas, Bioclesa edo Danoneren Bio Activiaren kasuan, oraindik ez da aldaketarik egin.

Irache elkarteak

begi onez hartu du legediaren aldaketa, honela kontsumitzaileak argi eta garbi jakinen baitu noiz hartzen duen produktu ekologiko bat eta noiz ez, bere informaziorako eskubidea sendotuz. Iracheren ustez egokia izanen litzateke araudi berriari buruzko informazio kanpaina egitea, kontsumitzaileei produktu hauen ezaugarriei buruzko ezagutza eta konfidantza emateko.

SOLASALDIAK

ELIZONDO

Maiatzaren 17an «Frantzisko Xabierkoa» solasaldia eskainiko du Pedro Mari Esartek 19:30etan Arizkunenean.
Maiatzaren 18an «San Frantzisko Xabierkoaren ikonografia. Hagiografiatik Artera» solasaldia eskainiko du Gabriela Torresek Arizkunenean 19:30etan.
Maiatzaren 19an «Amaiurko gaztelua, eginen den berreskuratzea» solasaldia eskainiko du Iñaki Sagredok Arizkunenean 19:30etan.
Maiatzaren 20an ziklo hau akitzeko, Amaiur eta Azpilkuetan barna bisita gidatua antolatuta da.

IKASTAROAK

BAZTAN

Maiatzaren 15etik 25era eta maiatzaren 29tik ekainaren 8ra informatika eta internet lantzeko hastapenak Arizkunenean. Izen ematea doan 948 131832 (Iturbrok).

ANTZERKIAK

LESAKA

Maiatzaren 27an Zirika Zirkus taldearen «Zorionak» haurrentzako antzeziana Kasinoan 17:00etan. Antzerki-tailerrak ere izanen dira konbentuan. Antolatzailea: Arrano Elkarte. Laguntzaileak: Leaskako Udala eta Nafarroako Gobernua (Arte eta Kultura).

KONTZERTUAK

BERA

Maiatzaren 23an Joseba Irazokik kontzertua eskainiko du Kultur Etxean 22:30etan. Sarrera: 4 euro. Berako Kultur Batzordeak antolatua.

ELIZONDO

Maiatzaren 20an Barricada taldearen kontzertua Lur diskotekan, 0:30etan.

LIBURUAK



Bala hutsak

Castillo SUAREZ

Castillo Suarez altsasuarraren poema-liburu berria; bere estiloari jarraituz, poema zuzen eta bortitzak egin ditu, gizon-emakumeen arteko harremanetan sortzen diren zaurietan arakatuz, umorearen eta probokazioaren bidez. Hizkuntza loratu eta metaforen ordez eguneroko mintzaira darrabil, zehaztasunez bezainbat iradokizunez beteriko testuetan. Paradoxikoa dirudien arren, bere poemak aldi berean dira adierazpen sendo

eta biribilak, batetik, eta anbiguotasunez jantzitako enigmak, bertzetik. Castillo Suarez (Altsasu, 1976) Euskal Filologian lizentziatua da, Sakanako Euskara Zerbitzuko burua, eta hainbat komunikabidetako kolaboratzailea; horrez gain edo gaineratik, baina, gure poesiako pertsonal eta berezietakoa bihurtu da urte gutxian. Orain arteko bere poema-liburuak; «Mugarri estaliak» (2000) eta «Spam poemak» (2004) izan dira.

00-34 **948 63 54 58**

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar da.
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da
(nahi izanez gero argazkiarekin).
8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ADOS

• **ELIZONDO.**
- Eraikuntza berriko azken pisua aparkalekuarekin salgai. - Apartamentu, pisu eta unifamiliarra salgai.
• **BIDASOA**
- Lur eremuak, baserria eta unifamiliarra salgai.
• **DONEZTEBE.**
- Unifamiliarra 2.000 m²ko partzelarekin salgai.
- Eraikuntza berriko pisuak salgai.
• **BAZTAN.**
- Erreformatuak eta erreformatzeko dauden bordak salgai.
• **PROMOZIO BERRIAK:**
• **NARBARTE.** 2 eta 3 gelako pisuak aparkaleku eta trasteroarekin salgai.
• **IGANTZI.** Pisu eta apartamentuak salgai.
INFORMA ZAITEZ!
948 451 841 / 948580705
www.ados-inmobiliaria.com

eta mobleztatua. Hirugarren solairua, igogailuarekin. ☎ 649 663864 (Ana).

DONEZTEBE. 85 m²ko pisua salgai. Trasteroarekin. ☎ 636 948961.

DONEZTEBE. Pisu salgai. ☎ 653 852143.

DONEZTEBE. Pisu estrenatu gabea saltzeko. Zazpi Gurutzeak 2.C. 101 m², sukaldea, komedorea, 3 logela eta 2 komun eta trasteroa. ☎ 948 630545.

ETXEBIZITZAK

102 Erosi

ERRATZU edo inguruko herrietan pisu bat erosi nahi da. ☎ 686 629028.

ANZABAL

Santiago 15 - ELIZONDO
Tfnoa: 948 580804
anzabal@anzabal.com

BAZTAN-BIDASOA

Lur, etxe, baserri, borda eta pisuen salmenta eta alokairuak.

BAZTAN-BIDASOA

Etxebizitzak behar ditugu errentan emateko eta saltzeko.

BULDAIN INMOBILIARIA

GORRITI. Herri erdian 750 m²ko lur eremua salgai. Famili bakarreko etxea eraikitzeko baimena dauka.
☎ 948 510 534 bulegoa

BULDAIN INMOBILIARIA

LEITZA. Bigarren eskuko sei etxebizitza salgai. 3 logelakoak. Prezioa: ± 27 milioi pezeta.
☎ 948 510 534 bulegoa

ETXEBIZITZAK

101 Salgai

DONEZTEBE. Apartamentu salgai, 82 m². 3 urtekoa

Lan bila zabilta?

LAN ESKAINTZA

ADMINISTRARI LAGUN.

- Unibertsitateak

- Udaletxeak

Soldata: 1.500 €

SUKALDARIAK

SUKALDE LAGUNTZAILEAK

- Naf. Diputazioa

- Asteburuak libre

Soldata: 1.600 €

LAN ESKAINTZA

GIDARIAK

TXOFERRAK

- Udaletxeak

- Naf. Diputazioa

Soldata: 1.800 €

HARRERAGILEAK

TELEFONISTAK

- Udaletxeak

- Naf. Diputazioa

Soldata: 1.100 €

Presta zaitez. Informazioa dohain.

948 199 596

630881.

BERA. Iturlandeta karrikan 135 m²ko lokal komertziala errentan ematen da. ☎ 948 630371.

ZERBITZUAK

208 Bertzelakoak

Musika ordenagailu bidez eskaintzen dugu (ezkontzak, kinto bestak, afariak, despedidak...). ☎ 653 709976.

LANA

301 Eskariak

Esperientzia duen **kameroa** eskaintzen da udako jailetan gauzez ostatuan lanean aritzeko. ☎ 619 000684.

Emakume batek ilunabarretan lan egin nahi du, 20:00etatik aitzinera, Bera edo Lesaka inguruan. ☎ 948 630290.

Mutil gazte batek Baztan-Bidasoa inguruan lan eginen

ARANTZA
Zurgindegia.....
Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu burkuntzak konpromisoa gabe
Irujo Zurginaren
BARRIO DE LA VILLA
948 630 222

luke. ☎ 678 040846.

LANA

302 Eskaintzak

Txoferra behar da, Lesaka-Bera ingurukoa bada hobe. Egunerotxean lo egiten da. Asteburuak libre. ☎ 608 771836 (Miguel).

BERA. Kondaira ostatuan neska bat behar da sukaldetan lan egiteko asteburuetan. Ortziriletan gauzez 3 orduz eta larunbat eta igandetan 3 ordu eguerdian eta 3 arratsean. Udan ere kontratua egiteko aukerarekin. ☎ 948 631632 edo 619 913375.

IKUS-ENTZUNEZKO ZERBITZUAK

LATSAGA

SOINUA eta IRUDIA:
Jaiak, ekitaldiak, feriak,
erakusketak, txosnak, ezkontzak,
kontzertuak, megalonia bideo,
multimedia, dispositibok,
zine emanaldiak...

IKUS-ENTZUNEZKO
TRESNERIA

latsaga@telefonica.net
Tlfaxa: 948 637 546 • Mug.: 609 477 277 • LESAKA

BERA. Ibardingo Benta Migelen kamarera behar da eguerdiko zerbitzuan. ☎ 948 631394.

IRUÑA. Industrialde batean aritzeko bi neska behar dira, bat barran aritzeko eta ber-tea jantokian. Goizeko eta arratsaldeko turnoan aritzen da eta asteburuak libre. Baztan-Bidasoa zonaldekoa bada hobe. ☎ 948 351822 (Asier edo Juanito).

Kamarera bat behar da Behobiako muga, taberna batean aritzeko. ☎ 629 472589.

Txoferra bilatzen da eskualdean ibiltzeko, kamioi rigidoarekin. ☎ 690 776147.

BERA. Jatetxe batean astebururako kamarera behar da. ☎ 948 631106.

OITZ. Posadan fregaderan aritzeko pertsona bat behar da. Larunbat eta igandetan lan egiteko. ☎ 948 451951.

ELIZONDO. Laster irekiko den telefonia denda baterako langilea behar da. Euskaraz jakitea, informatika ezagutzak, jende-aurreko esperientzia eta Baztanen bizitzeta baloratuko da. Kurrikuluma bidali Elizondoko 57 Posta Kutxara maiatzaren 24a baino lehen. ☎ 664 520646.

ETXALAR. Herriko Ostatuan asteburuetan barran eta astegunez kamarero aritzeko pertsona bat behar da. ☎ 948 635450.

DONEZTEBE. Ostatu batean emakumea behar da grabiketarako asteburuetan. ☎ 948 450383.

BERA. Jatetxe batean plater konbinatuak eta eguneko menuak egiteko esperientzia duen sukaldaria behar da. ☎ 654 385363.

DONEZTEBE. Ameztia ostatuan lan egiteko esperientzia duen neska arduratsua behar da. Euskalduna izatea eskatzen dugu. Interesatuak estatutik pasatu behar dute.

TALLERES SANTESTEBAN
☎ 948 450282 • DONEZTEBE

KOTXE IA BERRIEN SALMENTA (6-10 HILABETEKOAK)

CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE, SEDAN, MEGANE GRAND TOUR

ERA GUZTIETAKO ERREMOLKEAK

EHIZARAKO, MOTOAK, ZALDIK ETA QUAD-AK GARRAIATZEKO... ZURE NEURRIRA EGINDAKO ERREMOLKEAK



BERA. Ostatu batean zerbitzaria behar da, egunero lan egiteko. ☎ 948 631632.



Kamioi osoa salgai jubila-zioarengatik, tarjeta eta lanarekin. ADRENpresa, Smitz plataforma, antivuelco. lan ona eta prezio ona. ☎ 948 630576 edo 628 025128.

Kamioi osoa salgai, lanarekin. 2000. urtekoa. Bobinak eramatekoarekin. ☎ 639 775830.

Elbarri fisikoak. Nafarroako Diputazioan abudo sartzeko. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Sukaldariak, sukalde laguntzailea. Abudo sartzeko Nafarroako Diputazioan. Asteburuak libre. 1600€/hilabetea. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Harreragileak, telefonistak. Lanpostu librean udal-txetan eta Nafarroako Diputazioan. 1.100€/hilabetea. Informa zaitetz. ☎ 948 199596.

Haur zaindariak, hezitzaileak. Haurzaindegietan abudo

SAMPI ARAGON ZOANSA

Seat Ibiza TDI (aukeran), Seat Ibiza gasolina, Audi A3 TDI, Audi A3 1.8T, Golf TDI (aukeran), Seat Toledo TDI, Seat Toledo gasolina, Seat Leon (aukeran), Citroen Saxo D, Citroen ZX TD, Citroen Xsara Picasso, Lada Niva (aukeran), Suzuki Vitara gasolina, Mitsubishi Montero 5 ate (2.8 TD eta 2.5 TD)

☎ 948450354 - 948625555 • DONEZTEBE - BERA

MENDAUR MOTOR
☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak: Mitsubishi DID 3-5 ate, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 5 ate, Opel Zafira, Citroen C15, Galloper 3-5 ate, Opel Frontera Sport, Suzuki Ignis 4x4 eta Citroen Evasion 2.0 HDI. SUZUKIAK ETA VITARA AUKERAN



do sartzeko. Informa zaitetz. ☎ 948 199596.

Mantenimendua. Igeltse-roak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak, gidariak. Udaletxetarako lanpostu libre. 1.600 €/hilabetea. ☎ 948 199596.

Laborategia. Nafarroako Diputazioarako lanpostu libreak: teknikoak, laguntzaile sarnarioak, kimikoak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Gidariak, txoferrak. Abudo sartzeko udal-txetan, Nafarroako Diputazioan. 1800 €/hilabetea. ☎ 948 199596.

Administrari laguntzaileak. Abudo sartzeko unibertsitatetan, udal-txetan. 1.500 €/hilabetea. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Peoiak. Abudo sartzeko obretan, lorategietan. Ordu-txategia: 8etatik 15etara. Informa zaitetz. ☎ 948 199596.

Garbitzaileak. Udaletxe eta Nafarroako Diputazioarako lanpostu libre. Informa zaitetz. ☎ 948 199596.

MOTORRA
501 Salerosketak

BMW 316i autoa salgai. 2000. urtekoa, 54.000 km. ☎ 659 302184 (Simon) edo 948 453304 (Serreria Ariz-

ARIZKUN

Ordoki industri eremuan

NABE BERRIAK

Nahi diren m²ak

ADOS INMOBILIARIA
948 451841 Doneztebe
948 580705 Elizondo

GURIA INMOBILIARIA
649 805974 Irun

kon).

Renault Laguna 2.2 Diesela salgai. 138.000 km. Klimatizatu. NA-AP. Egoera onean. ☎ 948 450321.

Biejeke kamioia salgai, Renault 180 Midliner markakoa. 9 urte eta 400.000 km. Bolketearrekin. 3.000 euro. ☎ 616 126523.

Kotxearen erremolkea salgai, aluminiozkoa, bere poliesterezko tapakiarekin. 140 cm. luze eta 110 zabal. ☎ 618 628217.

Honda CR 250 motoa salgai, 2002. urtekoa. Oso berria. 3.300 euro. ☎ 639 448981.

Nissan 2.0 hiru plazako furgoneta salgai. 113.000 km. NA-AD matrikuladuna. ☎ 948 631137.

Quad Yamaha Banshee salgai, 350 cc, 2002koa, egoera onean. Gutti ibilia. Ekipamendu doblea. ☎ 687 052867 (19:00etatik aurrera).

Citroen ZX autoa salgai, NA-AM matrikuladuna. Arras egoera onean. ☎ 680 343337.

ANIMALIAK
602 Salerosketak

Asto arra salgai, 18 hilabete-koa. ☎ 948 634260.

Hamabi asto beltzetatik lau asto salgai Beran. ☎ 948 630004.

Bi zakurkume salgai, hispaniel ingelesa arrazakoak, txuri-marroiak, bi hilabete terdikoak. Emeak. ☎ 629 058598.

Pottoka arrazako zaldia salgai Beran. 6 urtekoa. ☎ 670 489337 (Joxe, 8:00etatik 20:00etara).

Bi poni (zaldi) salgai. ☎ 678 860244.

DENETARIK
702 Salerosketak

10.000 tella arabiar salgai. ☎ 656 732339.

Etxeko pikarri edo exkinharro zaharrak erosiko nituzke, harri gorriak. ☎ 650 543577.

John Deere enpakadorea salgai, oso egoera onean. Nahi izanez gero, erremolkeare ere. 2.100 euro. ☎ 669 260514.

HARREMANAK
801 Agurrak

Berako Begoña Errandonea Goikoetxeari zorianak maiatzaren 10ean urteak bete dituelako. Txanpaina freskatzen paratu! Hurbileko baten partetik.




IZARO TORRES ALEGRIA beratarak 4 urte bete ditu maiatzaren 7an urteak beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



ASIER LARRALDE KORTA lesakarrak maiatzaren 7an urteak beteko ditu. Zorionak familia guzaiaren partetik eta berexiki arreba Ainhoaren partetik.



ALOÑA ETXARTE TELLETXEA lesakarrak maiatzaren 13an 4 urte bete ditu. Zorionak etxeko partetik, sorgintxo.



ALOÑA ETXARTE TELLETXEA lesakarrak maiatzaren 13an 4 urte bete ditu. Zorionak ttio xiriki eta Iraiaeren partetik.



AINHOA LARRETXEA AGIRRE beratarak 10 urte bete ditu maiatzaren 13an. Zorionak eta aunitz urtez etxeko partetik. Belarritik tirakada Oierrek.



AMATXI GERTRU zorionak! Segi beti bezain alai eta niri mimitoak egiten izugarri gustoko ditut eta! Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



LUIS MARI beratarak maiatzaren 24an urteak beteko ditu. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik. Aita, onena zara eta infinituraino maite zaitut.



ZUMAI TXOPERENA EUGIK 8 urte bete ditu maiatzaren 7an. Zorionak Lesakako eta Igantziako familiaren partetik. Muxu handi bat.



JON eta BEÑAT IRIARTE MIKELPERIZENAK maiatzaren 1 eta 10ean bete dituzte 5 eta 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



JONE ETXEPARE ELRIORE beratarak 5 urte bete ditu maiatzaren 17an. Zorionak eta muxu bat Olatz, Izaro eta familiaren partetik. Aupa patata porru!



IMANOLEK urtea beteko du maiatzaren 18an. Zorionak osaba, izeba eta Garaziren partetik. Muxu handi bat.



MIGULEK urtea beteko du maiatzaren 19an. Zorionak osaba, izeba eta Garaziren partetik. Muxu handi bat.



XUBAN ELIZONDO GOIA lesakarrak maiatzaren 22an 2 urte beteko ditu. Zorionak gure kuku-xuari Josu, atta eta amaren partetik.



JON ABRILEK 31 urte bete ditu maiatzaren 15ean. Aunitz urtez eta muxu handi bat Ane, Naroa, Andoni, Mixeli eta Ainhoaren partetik.



ANDONI eta AINHOARENTZAT, 14 eta 9 urte beteko dituzte maiatzaren 15 eta 23an. Ongi pasatu eta onak izan, San Juan, Bera eta Lesakako familiaren partetik.



Igantziako **XABIER TABERNA TELLETXEAK** maiatzaren 27an 6 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



ANDONI eta AITOR LAZKANOTEGI MATXIARENA beratarak maiatzaren 12an eta 30ean 9 eta 6 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu aunitz gure etxeko «pilotariei». Aita, ama eta Iratiren partetik.



NAHIA PAGOLA ROMANO beratarak maiatzaren 29an 2 urte beteko ditu. Zorionak preziosa! Muxu handi bat atta eta amaren lagunen partetik.



NAHIA PAGOLA ROMANO beratarak maiatzaren 29an 2 urte beteko ditu. Gure sorgin ttikiarentzat muxu bat atta eta amaren partetik. Maite zaitugu.



NAHIA PAGOLA ROMANO beratarak maiatzaren 29an 2 urte beteko ditu. Muxu handiak gure ttikiarentzat, zure bi aitabixi eta amatxi, osabazibeen partetik.



Lesakako **AINARA PALENZUELA ETXEPAREK** 6 urte bete ditu maiatzaren 16an. Zorionak eta muxuak ya-ya, aita, ama eta bereziki Julenaren partetik.



UNAI LEIZA PEREIRA lesakarrak 6 urte beteko ditu ekainaren 7an. Zorionak aita, ama, Denis eta familiaren partetik. Muxu handi bat.



JULEN MIGELTORENAK eta bere osaba **RAFA MARITXALAREK** urteak beteko dituzte maiatzaren 14 eta 24an. Zorionak eta muxu handi bana famili guzaiaren partetik.



IZARO ALDABE TELLETXEAK 4 urte beteko ditu maiatzaren 27an. Zorionak familiaren partetik eta berexiki aita, ama eta Ugaitzen partetik.



MIGUEL UBIRIA ALZATE lesakarrak urtea beteko du maiatzaren 19an. Aunitz urtez ama-atta, ataxi-amatxik, Ane, Nuria, Garazi, osaba eta izeben partetik. Muxu handi bat denen partetik.



AMAIUR ESTONBA CRUZEK maiatzaren 26an 5 urte beteko ditu. Zorionak sorgintxo! Muxu handi bat Etxalarko eta Irungo familiaren partetik.



ASIER OSES GAINZA beratarak maiatzaren 23an 8 urte beteko ditu. Zorionak attona, amona eta osabaren partetik. Segi horrela gol aunitz sartzen!



ASIER OSES GAINZA beratarak maiatzaren 23an 8 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu bat Saioa, atta eta amaren partetik. Segi horrela txistulari!



Berako **AINHOAK** 5 urte beteko ditu maiatzaren 18an. Aunitz urtez etxeko partetik.



ARITZ IRAZOKI irundarrak 7 urte beteko ditu maiatzaren 29an. Zorionak ataxi, amatxi, Juanjo eta bereziki amatxoren partetik.



Sunbillako **JANIRE APEZTEGIAK** eta **IXABEL ARRETXEAK** urteak beteko dituzte. Muxu handi bat Iradiren partetik. Ongi pasa eguna.




Sunbillako **PAUL IRAZOKIRI** maiatzaren 19an urteak betetzen dituelako zorionak aunitz eta ongi ospatu!



Etxalarko **XABIER eta ENEKOK** 9 eta 6 urte beteko dituzte maiatzaren 14an eta ekainaren 20an. Zorionak famili guzaiaren partetik.

NORBAIT ZORIONTZEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,29 EUROKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:



ttipi-ttapa

Andutzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Urtebetetzeko argazkiak Internet-en ere

www.ttipi.info



*Estilo ugariko
mobleak*

**LARUNBAT GOIZ ETA
ARRATSALDEZ IREKIA**



ERAKUSKETA: Bittiria 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27
Tfnoa: 948 63 77 80
LESAKA



ORDOKI
altzariak

larunbatero
donezteben
giro paregabea

maiatzak
20
GAUPASA

kubata
bakoitzarekin
**TXUPITOA
debalde**

**txupitoak
debalde**

ZOZKETAK!!
2 pertsonendako
bidai bat
zozkotatuko da

SABITIAK
JOSU SALABERRIA
Patxi Tellexea
Patxi Tellexea

ZOZKETAK

JATEKETA GAZTEENTZAT
MENU BEREZIAK
Arzaketa jatetxea..... 948-450443
Beldarra jatetxea..... 948-450326
Hilarioa jatetxea..... 948-450003
Muntzar Etx. Auzoa Etx..... 948-450046
Muntzar Etx. Sarratsua Etx..... 948-450043
Kantaria gazteentzako..... 948-450707



Lur
d i s k o t e k a

www.lurelizondo.com

maiatzak **20** larunbata

15€ aurretik
18€ tokillan

00:30

BARRICADA



ekainak **03** larunbata



Kasketue
ufestuek + kasketue

ELIZONDO (Nafarroa)